

Arrasate

1999ko
Urtarrilak 29
437. zenb.



Eskubideak aldarrikatzen

IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • KULTURA ELKARRIZKETA: BAD F-LINE
EUREN IKUSPUNTUTIK: MIKEL ETXAGIBEL • KIROLAK: TXAPELDUN UGARI

HEZIBIDIEren aldeko jokoa errenta segurua



**HEZIBIDE
HEZKUNTZA TALDEA**

BILERA INFORMATIBOAK:

- **Haur Hezkuntza**
(Lau ikastolentzako bilera bakarria):
99-II-11, Monterronen
- **Lehen Hezkuntza (L.H.):**
San Frantzisko Xabier: 99-I-28
Almen: 99- II-2
San Viator: 99-II-9
- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (D.B.H.):**
San Frantzisko Xabier: 99-II-10
Almen: 99-II-4
San Viator: 99-II-3

ARRASATEKO BULEGOA:

Biteri Etorbidea, 15 behea
Tel: 943 79 88 75
20500 ARRASATE
GIPUZKOA



**HEZIBIDE
HEZKUNTZA TALDEA**

Bakea iruteko lau hari

1. Bakea ez da gerrarik eza, gerrarik nahi eza baizik.

Andoni Egañari entzun nion, eta harrigarri egin zitzaidan zenbateraino biribil daitekeen ideia bat bat-bateko bertsotan. Arma egon daitezke isilik eta, hala ere, bakea urrun. Armen bidez lortu nahi dena modu erosoagoan lor daitekeenean, orduan hurbiltzen da bakea. Euskal Herrian independentzia lortzeko legezko aukerarik ez dagoen bitartean, su etena akaso bai, baina ez da bakerik izango.

2. Bakea ez da abiapuntua, helmuga baizik.

Ez dadila inor



Mikel Irizar

nahas eta ez gaitzala inork nahas. Bake prozesua abiatzeko orduan, alferrik ipiniko dira aurrebaldintzak. Su etenak lagun lezake eta kale borrokak kalte egin. Presoak Euskal Herriratzea onuragarri litzateke eta Konstituzioa aldaezina dela oihukatzea kaltegarri. Hain juxtu, su etena behin betikoa izatea, kale borrokarik ez

izatea eta legeak hiritarren nahietara egokitzea baitira lortu beharreko helburuak.

3. Bakea ez da arkitektura, baina simetria eskatzen du.

Bi multzoren arteko arazoak gatazka bihurtzen dira multzo menperatuak multzo menperatzaile kolokan jartzeko adina indar biltzen duenean.

Gatazka gaintitu eta bakea lortzeko, ezinbestekoa da bi multzoren arteko aukerak parekoak izatea. Gurean, abertzaleek onartu beharko dute Euskal Herriak Espainia izaten segi dezakeela, eta Espainia zaleek aitortu beharko diote Euskal Herriari Espainiatik bereizteko aukera, beti ere hiritarren nahiaren arabera.

4. Bakea ez da amets hutsa, oraingoan posible da.

Abertzaleen multzoan lan handia egin da bildu eta simetria aldera hurbiltzeko. Beste multzoan oraindik ez, baina egin beharko dute. Europa dela eta, Espainia ultranazionalista bere mugak, dirua eta armadaren kontrola galtzeko bidean dago. Horrek ezinbestean aldatuko du espainiar nazionalismoa. Eta hori gutxi balitz, Aita Santua bera hemengo bakearen alde agertu da. Orain bai bakearen etsaiek ez dutela zer eginik!

“Bakea ez da gerrarik eza, gerrarik nahi eza baizik. Arma egon daitezke isilik eta, hala ere, bakea urrun”

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK
ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora Kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubaine Madera, Maider Osa. **Publizitateak:** Kaitlin Alende, Nerea Zallo, Arantazu Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 79 02 26)
Diselnuak: Txos Azumendi. **Asteburuetako berri-malleak:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre.
Kolaboratzaileak: Ander Ebeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agimourrela, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA Iakdea, Besalde M. E., Karmelo Uribarren, Bixente Pagaoga, Amaia Jauregi-Arraburu, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopi, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 112488. **ISSN:** 0214-4654. **Franko konterziatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta intzieren erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Ignacio Perez.

Arrasateko Udaleren laguntza

Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza

Eusko Jaurlaritzako Kultur Saillaren laguntza

29

milioi pta bildu dira Arrasaten Gara egunkaria egiteko

Egin egunkaria eta irratia itxi ostean, Baietz Plataforma sortu zen Mondragoen, beste herri askotan bezala. Helburua: dirua biltzea Egin ordezkaturako zuen egunkaria egiteko. Azkenean 29.000.000 pta bildu dira.

ITURRI ONETIK

Arrostaitz dantza taldearen izena

Arrasaten bi dantza talde daude: *Lore Gazteak* eta *Txikitxu-Arrostaitz*. Orain zortzi bat urte ere bi talde ziren: *Lore Gazteak* eta *Txikitxu*. Lehenean lau urtetik gorako neska-mutikoez jarraipena izaten zuten helduaroan ere. *Txikitxukoek*, aldiz, bi irtenbide baino ez zuten hamabi urte betetakoan: *Lore Gaztera* pasatu edo dantza utzi.

Ez batarekin ez bestearekin konforme ez eta, bilera bat egin zuten *Txikitxuko* handitxo zenbaitek. Ondorioz, dantza talde berri bat sortzea erabaki zuten. Zer izen jarri, ordea? Marga Rosa Mercader dantza irakasleaz gogoratu ziren eta haren omenez, *Arrostaitz* izena asmatu zuten. Izen horren oinarrian Arrosa eta Udalaitz daude. Horra hor *Arrostaitz* dantza taldearen izenaren jatorria.

“Eliza ez da Aita Santua. Eliza zu eta ni gara, eta hainbat atxabaltar eta arrasatear, kristaunon ‘elkartea’ esan nahi baitu ecclesia hitzak”

Iñaki Sarasua

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 29**
• Gaeuz eta egunez: Irizar, Erguin
- Larunbata, 30**
• Gaeuz eta egunez: Amezua, Santa Marina
- Igandea, 31**
• Gaeuz eta egunez: Zabala, Zarugalde
- Astelehena, 1**
• Gaeuz eta egunez: Ruiz, Maala
- Asteartea, 2**
• Gaeuz eta egunez: Morales, San Andres
- Asteazkena, 3**
• Gaeuz eta egunez: Azkoaga, Ferrerias
- Osteguna, 4**
• Gaeuz eta egunez: Español, Iturriotz

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritxteak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguatorialdea 943 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**
Bergara 943 76 55 76
- DYA**
Antzuola 943 78 71 57
- Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak) ... 943 03 53 00
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 53 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
• Fax zenbakia: 943 03 05 14
Arebakaleta 943 79 74 58
Aramaio (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**
Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**
Orati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Arebakaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
Arrasate 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**
Urakate (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) ... 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78
- Garraioak**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Kontsumitzailearentzako informazioa**
KIUB-OMIC 943 79 51 55
- Monterron liburutegia**
Monterron 943 77 01 05
- Irratia**
Arrasate Irratia 943 79 58 77

"GARA" EGUNKARIA

1 998ko uztailaren 15ean, Garzon epaileak *Egin* egunkariaren eta *Egin* Irratiaren instalazioak itxi ostean, Euskal Herriko herri guztietan "Baietz plataformak" sortu ziren, komunikabide horiek ordezkatu dituen komunikabide-proiektu berriaren inguruan abertzaleen elkartasuna jasotzeko eta proiektua finantzatzeko, 1.000.000.000 pta. hain zuzen ere. .

Idatzi honen bidez, azkeneko hiru hilabeteotan *Gara* egunkari berria sortzeko, komunikabide proiektu osaren lehendabiziko errealitatea, Arrasateko herriak erakutsitako elkartasuna eta emandako dirua eskertu nahi ditu Arrasateko "Baietz Plataformak".

Iazko uztaila ezker, adierazpen askatasunaren aldeko erronka honetan, jendea sentibilizatzeko eta dirua biltzeko herrian antolatu diren ekintzetan, besteak beste, uztailako lan geldialdi jendetsuan, txoznan, hitzaldian, dirubilketa egunean edo musika kontzertuan parte hartu dutenek zein akzio erosle gisa diru ekarpenak egin dituztenek, denon artean, Arrasaten 29.000.000 pta. ko diru kopurua ahalbidetu dute.

Izan ere, azkeneko hiru hilabete hauetan, Euskal Herriko zein Arrasateko ezkerzale eta abertzaleengandik jasotako elkartasuna eta konpromisoari esker, urtarilaren 30etik aurrera, *Gara* egunkariaren sorrerarekin,

abian jarriko da abertzaleentzat hain beharrezkoa den komunikabide propioen esparru berria. Proiektu horrek EKHE, SAK (Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkarte) Euskal Herria ia 10.000 akzio-erosle izaki, tresna erabakigarri bilakatu da gaurko egunean, bizitzaren ari garen eraikuntza nazionalaren testuinguru politikorako.

Norbaitek pentsatuko du, agian, dirua biltzeko kanpainak bukatu egin dela, eta ez zaio arrazoirik falta, baina guztiok dakigun bezala, askatasunaren aldeko borroak sekula santan ez du bukaerarik. Urtarilaren 30etik aurrera gure *Gara* berria irakurri ahal izango dugu eta esan dezakegu neurri batean, bederen, errealitate bihurtu dela Arrasateko herriak egindako lanari esker. Baina are garrantzitsuago izango da 3 In, leian... egunero-egunero, egunkari berri horren partaide eta erosle izatea.

Hire laguntzari esker, *Gara* egin juau/jonau. Eskerririk asko.

Arrasateko 1.000 milioi Baietz Plataforma

AURRERA BEGIRA ZER?

Arrasateko herrian, presoaren Euskal Herriratzearen aldeko atxikimendua eman duten alderdi politiko, sindikatu, erakundeak *Aurrera begira zer egin behar dugun eta nola landu presoen gaia* batzar baterako deialdia egin nahi dugu.

Azken urte hauetan, behin eta berriro preso dauden gure senide eta lagunaren egoera larria salatzen aritu bagara ere, eta une honetan euskal gizartearen gehiengo zabalaren nahia egoera honekin amaitzea bada ere, izugarriko oztopoak ditugu geure helburua lortzeko.

Euskal presoak Euskal Herriratze bidean gaudela badakigu eta denon artean erabaki behar dugu oztopo horiek nola gainditu, zer urrats egin behar ditugun hemendik aurrera, etab.

Euskal presoak Euskal Herrira lelopean, orain artean antolatu ditugun ekimenduetan parte hartu duzunez eta, behin eta berriro aldarrikapen honen inguruan zure atxikimendua adierazi duzunez, lelo hau gauza dadin zeure iritzia, ekarpenak, etab. ezinbestekoak dira.

Eskutitz honen bitartez urtarilaren 30ean Monterronen goizeko 11:00etan Amnistiaren Aldeko mugimenduen antolatu duen batzar irekira gonbidatu nahi zaitugu.

Zure partaidetzaren zain, mila esker.

Arrasateko Amnistiaren Aldeko Komiteak eta Senideak


NARE
 psikologoak
 Haurrak - helduak - bikoteak
RPS. 292/98
 Isasi, 17 - 1 • EIBAR •
 Tel.: 943 20 05 95

UGARAN
jatetxea
 Garagartza auzoa
 Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE


MEMESA
 Industria hornidurak
 Tel. 943 71 24 25

Beharrezkoa ikusten duzu garabi zerbitzua?

Arrasateko Udalak gaizki utzitako beribilak jasoko dituen garabia jarri asmo du.



Nieves Miguel
(37 urte)
Langilea

Bai, batez ere gaizki aparkatzen duen jendearen autoak ken ditzaten.



Ines Mari Garzia
(39 urte)
Irakaslea

Gero eta leku gutxiago dago aparkatzeko, baina, beharbada parking gehiago jarri behar lituzkete lehenengo.



Joseba Ugalde
(47 urte)
Langilea

Garraio publiko gehiago jarri ezean, aparkaleku gehiagoko behar irateke. Bestela, behar lituzkete lehenengo.



Julian Etxaniz
(36 urte)
Langilea

Hemen nahiko ondo dago aparkatzeko, eta ez dut beharrezkoa ikusten garabia.



Izaskun Etxeberria
(32 urte)
Langilea

Bai, auto asko bigarren lerroan egoten dira bestela.



Juan Luis Esperesate
(33 urte)
Langilea

Ez. Aparkaleku gehiagoko behar ditugu.



Aitor Zarraoa
(26 urte)
Langilea

Ez. Lehenengo aparkalekuak egin ditzatela, eta gero garabia jarri.



Maria Isabel Jimenez
(52 urte)
Etxekoandrea

Ez. Azken batean isun gehiago jarriko dizkigute. Parking gehiago behar dira.

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Ondo ibili nahi duzu? Zuri laguntzeko prest gaude

- Bizkarra zaintzeko faja bereziak.
- Hanketarako plantilla bereziak.
- Lanerako eskalapoia edo zuekoak.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

BENGOA

Lurrindegia • Bitxitegia
Opariak

SALGAI

Zerkaosteta, 5
Tel.: 943 79 28 85

Arrasate

LANAK

SANTA TERESAN


Santa Teresako 18, 20 eta 22 zenbakietan eta Doneztebe Portuko kalean saneamendu lanak egiten ari dira.

OTALORAN

Pilotalekua egiteko lanak.


KONTZEZIÑON

Etxeak egiteko lanak.




Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 29



LARUNBATA 30




IGANDEA 31

Lainoak izango dira nagusi eta tarteka euria egingo du, baina gutxi. Temperatura ez da aldatuko.

Goizpartean izotza egin dezake eta eguna lainotua egongo da. Haizeak Ekialdetik, ahul joko du, ahul.

Euria egingo du tarteka. Tenperaturak behera egingo du, haizeak Ipar-ekialdetik joko du eta.

Ilargia



Ilbetea

Hilabeteko azken egunean, urtarrikak 31, ilargi bete izango dugu.

Mezak

Parrokia

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (erdaraz)

19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

San Andres

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean

10:00 (erdaraz)

11:00 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Santa Teresa

Larunbatean

19:00 (elebiduna)


Igandean

10:30 (erdaraz)

11:30 eta San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila %98



Distantziak

Arrasa									
121	Baiona								
690	579	Bartzelona							
57	170	620	Bilbo						
1.158	1.038	2.883	1.207	Brusela					
72	50	529	119	1.088	Donostia				
40	180	530	66	1.206	118	Gasteiz			
107	120	437	159	1.180	92	93	Iruñea		
391	519	621	395	1.556	469	351	407	Madril	
864	743	1.113	911	296	792	910	884	1.260	Paris

USTEAK USTE

Motorrak berotzen

Kanpainan gaude. Alderdi guztiak ekainaren 13ko hauteskundera begira. Baita hemen ere.

Alkatea deseroso dabil. Alde batetik, lasai sentitzen da Arrasateko udala gobernatzen duen hirutarikoan. Bestetik, berriz, bere alderdia Lizarrako Itunean sartuta dago eta Euskal Herriko Udalerriak Biltzarreko deia egin du; HB eta EAekin batera. Bide horretatik, eta EArekiko zerrenda bateratuak ez badu miraririk egiten, ikusten du alkatetzagal lezakeela, EHren eskuetara.

Sozialistak etsita daude. Behingoz lortua zutenean udal etxean gobernatzea, ikusten dute beren gobernuak beste norabaitera begira ari direla. Ekainean udal gobernutik kanpo eta boto dexente galduta aurki daitezke.

EHk alkatetzaberreskuratzeko parada ezin hobea ikusten du zerumugan. Horretatik eskatu omen dio Xabier Zubizarretari berriro ere zerrendaburu izatea.

EA joan doa, haizeak eramanda edo. Ezker Batua zaparradari eustera. Eta PP lasai, agertu ere ez.

Joxe Aranzabal



Urtebete Guggenheim museoan

* Mikel Etxagibel

Guggenheim Bilbao Museoaren lehen urtea ezin hobea izan da. Begira bestela xehetasun hauei: 1998an guztira 1.307.187 bisitari izan ditu; 104 enpresa eta erakunde pribatu bildu dira kide korporatiboen programara; Museoaren Lagunak taldeak 10.000 inguru kideekin amaitu du urtea; %75eko autofinantzazio maila lortu du, aurreikusten zena baino 23 puntu gainetik.

99ko programazio artistikoa Guggenheim Bilbao Museoaren programazio artistikoa bi zatitan bana daiteke. Alde batetik, Aldi Baterako Erakusketa Planari dagokiona, eta bestetik Bilduma Iraunkorra oinarritzat hartuz egiten diren instalazio desberdinei dagokiena. Bilduma Iraunkorra Solomon R. Guggenheim Foundation-en eta Guggenheim Bilbao Museoaren funtsek osatzen dute. Aurtengo egutegiari

gagozkiola, berriz, hona hemen erakusketarik garrantzitsuenak.

Cristina Iglesias erakusketa otsailaren 14a arte ikusi ahal izango da. *Robert Rauschenberg*: atzera begirakoa martxoaren 7a arte egongo da. Gainera, aldi horretan zehar *Abangoardiak eta espresionismoa XX. mendean* adierazten duten bilduma iraunkorrekobren aukeraketa ere erakusgai izango da museoaren hirugarren solairuko hiru areto klasikoetan.

Martxoaren hasieran, *Durerorengandik Rauschenbergerengana*: marrazkiaz arduratzen duen bilduma Guggenheim bildumetako mai-

sulanak erakusketa inauguratuko da eta, aldi berean, martxoaren 5etik aurrera alegia, bilduma iraunkorrekop artearen lan aukeraketa bat aurkeztuko da.

Apirileko bigarren hamabostaldian aldi baterako bi erakusketa inauguratuko dira, gaur egungo eskulturaren bi artista bikaini eskainiak: Eduardo Txillida eta Richard Serra. Bi erakusketa horiek abuztuan eta urrian amaituko dira, hurrenez hurren. Aldi horretan zehar eta erakusketaren osagarri gisa, bilduma iraunkorrekohiru aurkezpen egongo dira ikusgai: *Euskal Herriko eta Espainiako Gaur Egungo Arte*; *Pintura eta eskultura modernoa*; eta *Gaur Egungo Artearen Nazioarteko Korranteak*.

Urriaren erdialdera *Andy Warhol: A Factory* erakusketa inauguratuko da, eta 2000. urtean sartu arte iraungo du. Erakusketa honekin batera, dagoeneko New Yorkeko Museoan erakusgai egon den eta jendartearen arrakasta handia izan duen beste bat izango da, hau da, *Motozikletaren artea*.

Aldi berean, museoak bilduma iraunkorren ikuspegi berri bat aurkeztuko du, hiru kontzepturen inguruan: Gerraosteko Europa eta Amerikako Arte, Artistak Sakontasunean: Clemente, Kiefer eta Sol LeWitt; eta Gaur Egungo Argazkigintza.

* Garapen eta Komunikazio zuzendariordea

“
%75eko autofinantzazio maila lortu du museoak, aurreikusitakoa baino 23 puntu gainetik
”

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

29 ostirala

■ ZINEA

Nada en la nevera, Alai zinemana, 19:00etan eta 21:30etan.

■ MUS TXAPELKETA

Gaueko 22:00etan ekingo diote Alkartetxean, X. Mus Txapelketari.

■ DIAPOSITIBA EMANALDIA

Besaideko Gazte Ekin-tzak antolatuta, Gazte ekintzen inguruko diapositiba emanaldia eskainiko da Besaideren egoitzan.

■ ITOITZ BIZIRIK

Itoitzeko urtegiaren aurka Iruñean egingo den kale agerraldira joateko autobusa 15:15etan aterako da, Garibai kaletik.

30 larunbata

■ ZINEA

Very bad things, Alai zinemana, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan

■ PRESOEN ALDE

Amnistia-ren Aldeko mugimenduak bilera zabalara egingo du, 11:00etan, Monterronen.

31 igandea

■ ZINEA

Very bad things, Alai zinemana, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ SAGARDOTEGIRA IRTEERA

Besaidek urtero sagardotegira joateko antolatzen duen irteera, goizeko 07:00etan aterako da Garibaitik. Mendi irteera Madarixa-Izarraitz-

-Zestoa izango da.

■ SAN FELIPE APOSTOL

Urteko batzar orokorra egingo du San Felipe Apostol elkarteak. Batzarra eguerdiko 12:15etan izango da, San Viator ikastolan. Aurretik, 11:00etan, meza emango da San Joan Bautista parrokian.

■ KULTUR ERROTA

Jabier Muguruza eta Aretxabaletako Bi Luma taldea izango dira Kultur Errota programaren barruan, Amaia antzokian. Jaialdia hallean izango da, arratsaldeko 19:30etan.

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

Gaztetxean musika emanaldia izango da, 19:00etan. Talde hauek joko dute: Santanderko *Cementerio Show* punk taldea eta Bartzelona-ko *Unabomber*.

1 astelehena

■ ZINEA

Very bad things, Alai zinemana, 19:00etan eta 21:30etan.

■ SANTA AGEDA

Santa Ageda Koruetako kantari, poltsero eta gainontzeko laguntzaileek bilera dute Casinon, 21:00etan.

2 asteartea

■ ZINEA

Very bad things, Alai zinemana, 19:00etan eta 21:30etan.

■ BILERA ALMENEN

Almen ikastolak bilera egingo du, aurten sei urte bete edo Lehen Hezkuntzako lehenengo kurtsoan matrikulatu behar duten umeen gurasoei zuzenduta. Bilera, euskaraz, 15:45etan izango da eta gaztelaniaz, 19:00etan.

3 asteazkena

■ BILERA SAN VIATORREN

San Viator ikastolak bilera egingo du aurten hamabi urte beteko dituzten edo DBH-ko lehenengo kurtsoan hasiko diren neska-mutikoen gurasoekin. Ordua, 18:30etan, ikastolan bertan.

Jili Jili

%50eko BEHERAPENAK

Berritze lanak direla eta,
Ferrerias kaleko 28.ean
gaude

NAROKI

LIBURUDENDA · BITXITEGIA

Larunbat arratsaldeetan zabalik
Prezio ezin hobeak!!!

Erdiko kale, 23 • ARRASATE • TEL.: 943 79 20 47

4 osteguna

■ GUATEMALA MINTZAGAI

Txatxilipurdik eta Gazte Txokoak, "Guatemalaren oihartzuna" izeneko hitzaldia eta diapositiba emanaldia antolatu dute otsailaren 5erako. Saioa San Andresko gazte txokoa izango da, arratsaldeko 19:30etan.

■ 1934KO KINTOEI

Joan den asteko Arrasate Pressen aditzera eman genizuen bezala, otsailaren 6an 1934an jaiotakoen bazkaria egingo da. Hala ere, akats bat zegoen berri hartan, izen ematea 2.000 pta. kostatzen dela esan beharrean, bazkariak 3.000 pta. balioko duela esan genizuen eta gaizki zegoen. Beraz, 1934an jaiotakoek jakin dezazuen, bazkarirako izen ematea 2.000 pta. kostako da. Bengoa tabernan eman dezakezue izena, otsailren 3a baino lehen.

■ TXALAPARTA IKASTAROA

Gazte Bulegoak txalaparta ikastaroa antolatu du Musakolako saloian otsailaren 5ean hasi eta maiatzaren 8a arte. Matrikula 2.000 pta. kostatuko da.

■ EUSKAL DANTZAK

Lore Gazteak dantza taldeak euskal dantza ikastaroa antolatu du, 10-14 urte arteko gazteentzat. Ikastaroa otsailaren 17an hasiko da eta San Juanak arte iraungo du. Matrikula 1.000 pta. izango da. 15 urtetik aurrerakoei zuzenduta, berriz, martxoaren 5etik San Juanak arte eskainiko dute dantza ikastaroa. Berri gehiago, Gazte Bulegoan.

■ GAUR EGUNGO DANTZAK

Ana Mendiolak gaur egungo dantzak eta jazz dantza ikastaroa eskainiko du otsailaren 6tik maiatzaren 29ra arte. Saioak Arrasate Musikalen izango dira eta matrikula 5.000 pta. kostako da. Berri gehiago, Gazte Bulegoan.

■ HITZALDIA GURASOENTZAT

Bi urteko haurren gurasoei zuzendutako hitzaldia egongo da Erguingo Herri Eskolan, arratsaldeko 18:00etan.

■ BILERA ALMENEN

DBH bilera egingo dute ikastolako haurren gurasoekin, 18:30etan, ikastolan bertan.

■ KORRIKA BATZORDEA

Arrasateko Korrika Batzordea osatzeko bilera egingo da Monterron jauregian, arratsaldeko 19:00etan.

Martxoaren 8ko III. kartel lehiaketa "DEMOKRAZIA ERE EMAKUMEONTZAT"

Zure lana aurkezteko epea: otsailak 10
Oinarriak: Arrasateko Emakume Sailean
Berri gehiago 943 79 09 00 telefonora
deituta



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■



III. URTEURRENA GUILLERMO GARAI ITURRIAGA "WILLY"

ZURE LAGUNEN PARTETIK
"WHISKY DARLING"

Jaiotzak

- Maitane Iria Oceja. Urtarrilaren 3an.
- Unai Gutierrez Gallastegi. Urtarrilaren 12an.
- Marina Mulas Jimenez. Urtarrilaren 12an.
- Markel Agiriano Lai. Urtarrilaren 15ean.
- Odei Bouzon Otxoa. Urtarrilaren 16an.
- Garazi Ibarrondo Mondragón. Urtarrilaren 23an

Heriotzak

- Eugenio Romero Pozo. Urtarrilaren 13an.
- Joseba Arana Lazkano. Urtarrilaren 13an.
- Laureano Letamendi Ojea. Urtarrilaren 19an.
- María Juana Ugarte Iarza. Urtarrilaren 21ean.
- Isabel Rubio Gutiérrez. Urtarrilaren 26an.

Uribeberria errugabe

Josu Uribeberria mondragoetarra goardia zibil baten autoan lapa-bonba bat jarri izanaz errugabetu zuen Auzitegi Gorenak, joan den asteartean, Emilio Arrizabalagarekin batera.

Josurekin batera Jose Migel Gaztelu, Xabier Ugarte eta Xabin Usandizaga epaitu zituzten. 78 urteko kartzela zigorra ezarri diete.

Bellotxa komandoko kideek, 1985eko maiatzaren 13an Francisco Arias goardia zibilaren autoan bonbapapa bat jarri zuten.

Langile bat kalera Gelman

Joan den ostiralean Pedro Mertxan, *Papi*, Gelmatik kaleratu zuten. 1987tik fijoazen enpresan, baina zuzendaritza batzordeak bere lana ondo ez betetzea egotzi eta kaleratzea erabaki zuen.

ESK sindikatuak salatu duenez, *Papi* zerrendaburu izan behar zen Gelman datorren hilean egingo diren hauteskunde sindikaletan eta horrek ekarri dio kaleratzea.

Gauzak horrela, astelehenetik eta ostiralera bitartean, eta ordu erdiz, kontzentrazioak egin dituzte Gelma aurrean, kaleratzea salatzen eta Mertxanekiko elkartasuna adierazteko.



Kontzentrazioak Gelman.

ENPRESA BATZORDEAK

UGT, ELA eta CCOO sindikatuek osatzen dute Gelmako enpresa batzordea. Honek bilera egin zuen joan den asteazkenean eta bi orduko lanuztea egitea erabaki zuen, kaleratuarekiko elkartasuna adierazteko. Lanuztea datorren astean egingo da, horretarako baimena eskatu eta gero. Gainera Gelmaren aurrealdean egin diren kontzentrazioekin bat egitea eta otsailean kale agerraldia deitzea adostu zuten.

Papik, berriz, Gelmako zuzendaritza epaitegira eramandu, baina epaiketa bi hilabete barru edo izango da.

Herri lanak barra-barra

Aste honetako Gobernu Batzordeak horrela erabakita, hainbat lan hasiko dituzte datozen egunotan.

Hasteko, Iturriotz, Gazteluondo, Erdiko Kale eta Takoloko argiteria berriztu egingo dute. Era berean, ur saneamendua konpondu edo aldatzeko lanak ere egingo dituzte Santamaina eta Kontzezino kaleetan.

Honetaz gain, hiru biribilen bueltak porlanez inguratuko dituzte. Izan ere, automobilak lorategietara igotzen

dira maiz buelta emateko orduan, lorategiak hondatuz.

Gipuzkoa Etorbideko zuhaitzak ere aldatu egingo dituzte. Zuhaitz txikiagoak ipiniko dira. Hondarribia kaletik Makatzena kalera doan eskaileraren alboko berdegunea porlanez estaliko dute.

Azkenik, Santa Barbarako egurrezko zubitik Udala plazako biribileraino doan balaustada aldatu egingo da.

AIRE KALITATE ONA

Eusko Jaurlaritzaren Inguru-

giro Sailak egindako txosten baten arabera, Mondragoeko airearen kutsadura, edozein herri industrializatutandagoenabaino baxuagoa da, legeraren arabera.

Txosten hau egiteko, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Saila Mondragoeko airea aztertzen aritu da iazko martxotik abuztura bitartean. Izan ere, Fagor Ederlan enpresak Arrasateko airearen kutsadura eraginik daukan edo ez zehaztu nahi izan dute.



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Arrasateko Herri Eskola

Guztiona. Gustukoena.

- Carraioa dohain
- Jangela subentzionatua

Matrikulatze epea:
Otsailaren 1etik 12ra arte



San Andres: 943 79 20 69



Erguin: 943 79 77 74



Musakola: 943 79 04 49



Institutua: 943 79 44 47

Arrasateko Udala Iruñean izango da Euskal Herriko Udalerrien Biltzarrean

Eusko Alderdi Jeltzaleak 700 zinegotzi bildu zituen joan den larunbatean Bilbon, tartean alderdiak Arrasateko Udalean dituen bost zinegotziak. Bilera hartan EAJk Euskal Herriko Udalerrien Biltzarrearen aldeko deia egin zuen. Honek lurralde guztien ordezkari izango luke.

HBk datorren larunbatean bilduko ditu bere hautesiatsiak, gai honen inguruan hitz egiteko.

Otsailaren 6an proposamen honekin ados dauden guztiak Iruñean bilduko dira. Arrasateko Udala ere hantxe izango da, EAJ, EA eta HBko zinegotziak.

• **Jose Mari Loiti (EAJ):** "Ados nago nire alderdiaren proposamenarekin. Ez dut ezergehiago esan nahi, proposamena nahikoa argia da eta".

• **Antonio Palacios (PP):** "Ez diot zentzurik ikusten udalerrien biltzarrari, badagoelako gehiengo abertzalea duen legebiltzar bat. Ez dakit, gainera, nola gauzatu den Nafarroan eta Iparraldean, han gehiengo ez baita abertzalea".

• **Xabier Zubizarreta (HB):** "Zeharo bultzatzen dugu ideia hori. Euskal Herrian tradizio handia du udalak. Gainera, hainbat ezaugarri ditu, oso interesgarriak. Bat, lurralde

osoaren ordezkari izango bideratzen du. Bi, herritarren partehartzea sakondu egiten du. Hiru, instituzio bildu bat sortuko du, gaur egungo zatiketa instituzionala gainditzeko. Espero dugu instituzio hau Euskal Herriak izan behar dituen instituzioen eramuna izatea".

• **Paco Garcia (PSE-EE):** "Printzipioz uste dugu estatutuak oraindik ere asko duela lantzeko. Proposamenak galdera marka ugari irekitzen ditu, zeren nor konponduko dituzte zergen arazoa, esate baterako? Edo zer egin behar dugu diputazioekin edo legebiltzarrekin? Udalerrien Biltza-

rrarekin zer nahi dute, hori guztia pikutara bota? Iruditzen zait hori demokraziari, estatutuari eta konstituzioari harrizko bat jartzea izango litzatekeela".

• **Isabel Gallastegi (EA):** "Eusko Alkartasuna beti egon da horren alde, baina gustatuko litzaziguke EAJk egin duen proposamena aurrera ateratzea eta abertzale guztiok hor sartzea".

• **Joseba Ugalde (EB):** "Alderdi moduan oraindik ez dugu erabakirik hartu gai honen inguruan. Egun hauetan egingo dugu hausnarketa eta horren ondoren hartuko ditugu erabakiak".

HAUEK ERE BAI...



izena eman **ae**k n

Meatzarien auzoa

Asteburuan zehar Meatzereka baserri auzoko jaiak direla eta, haraxe hurbiltzeko parada egokia iruditu zaigu. Honela, jaien inguruan hitz egiteaz gain, baserri auzo hau hobeto ezagutuko dugu. Nerea Ibarrondo, auzo alkate ordezkariak eman digu Meatzereka berri.

Udala bidean dagoen Fiat auto saltokitik ia Kanpanzar gainerainoko lurrek osatzen dute Meatzereka auzoa, lehen Veneras izenekoa. Hogei bat etxe daude hantxe sakabanatuta. San Baleixoak dira jai nagusiak eta Meatzereka ermita santu honen omenezkoa da. Ermita hau, zeharo hondatuta egon da urte askoan zehar, baina duela hamabi urte, Mondragoeko On Jose Mari Astigarragak lehen zegoen modu berberean berriztu zuen.

Baserri auzo honen beste ezaugarri bat, Galarrako kobazuloa da. Oso luzea, pasabide askotakoa eta ezezagun samarra. On Joxe Miel Barandiaran ibili zen arrasto bila. Lehen, mineralak ateratzen omen zituzten. Kondairak dioenez, Baleixo hantxe egon zen ezkatututa etsaiengandik ihesi. Eta oso geroago, baita Isabel II.



Harrobiak, kobazuloa eta Balerio sainduaren omenezko ermita dauka.

Espainiako erregina ere.

PERTSONAIA ESANGURATSUAK

Aitor Ibarrondo da Meatzereka auzo alkatea. 18 urterekin hartu zuen kargua eta oraindik ere hantxe dirau. Aitor Ibarrondori laguntzen, hiru pertsonaz osatutako batzordea dago: Inazio Zuzubizkar, Maribi Maiztegi eta Isabel Gallastegi.

Pertsona esanguratsuen artean ezin aipatzeke utzi, Imanol Etxeberria, Athletic-eko atezaina. Meatzereka 15 urterekin joan, eta hantxe gelditu zen.

JAIK

San Baleixoak dira jai nagusiak. Urtarrilaren azken asteburuan ospatzen dira. Gaur

hasi eta igandea arte, beraz, ekitaldi ugari egingo dira

Jaia Meatzereka elkarrekin izango den afari herrikoiarekin hasiko da. Agirre eta Mañukorta bertsolariak ere hantxe izango dira, giroari umore puntua emanaz.

Larunbatean, bixamona kentzeko futbito partida jokatuko dute goizeko 11:00etan. Arratsaldeko 16:00etan, umeen txanda izango da, Gorritik ekarritako pottokak, oilarrak, ahuntzak... jolasgai izango dituzte. Bitartean, elkartean mus txapelketan arituko dira. Eguna bukatzeko, erromeria izango da Anaiak taldearekin. Goizalde partean, berriz, txerri harrapaketa, eta gero, guztiontzat txokolatada.

Jaien azken egunean,

Mezarekin hasi, ostean ohi-turazko gailetak eta mistela dastatu eta trikitilari eta txistulariekin eginiko herri txikiteoarekin bukatuko dira jaiak.

AUZOKO ARAZOAK

Biltzeko lekurik eza: emakumeek ez daukate non bildu. Elkartea gizonezkoena da eta udalak ez omen die bestelakorik ematen. Gauza berdina pasatzen zaie gazte, auzo-alkate eta abarrei.

Baserri bideak: poliki-poliki konpontzen ari dira, baina astiroegi auzokideen ustez. Ur saneamendua: ura badaukate, baina ur saneamendurik ez.

Edukiontzia: bi edukiontzi daude auzo guztira. Gehiago behar dituzte eta eskatzen aspertu dira.

Erreka: Veneras erreka oso zikin omen da eta Civas lantegia itxita dagoenez, garbitzea nahiko lukete auzokideek.

Bide berriak: Civasatik aurrera doan bideak jarraitpena izan beharko luke. Honela, elkarteraino iristiaz gain, mendizaleek ere erabiliko lukete Udala edo San Kristobalera joateko.

Arriskua errepidean: beti beldurrez ibiltzen omen dira oinezkoak errepide nagusian, oso estua baita.

beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 943 76 59 39 / 943 76 59 72 • Fax: 943 76 25 72

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABAETA

BERGARA

1 Badago aurrekontua

Astelehenean aurtengo aurrekontua onartu zen udaletxean. Bi mila milioi t' erdi pasatxo dauka Bergarak aurten gastatzeko. Horietatik zazpiehun milioi, inbertsioetarako erabiliko dira, 230 milioi industrialde berrirako, 82 milioi autobus geltokia eraikitzeko, 50 milioi igerilekuak konpontzeko, 39 milioi merkatu-rako eta beste 40 bide eta proiektuetarako.


Bestalde, mila milioi t' erdi, pertsonal gastuei, interesei, trasferentziei eta ohiko gastuei aurre egiteko. Iazko aurrekontuarekin konparatuz, %8,2ko igoera dauka aurtengoak.

OÑATI

2 Oñati eta Mexiko

Mexikoko Zacatecas herriko alkatea, Magdalena Nuñez, Oñatin izan zen asteartean bi herrien arteko senidetzea zehazteko. Hantxe izan ziren Oñatiko alkatea, txistulari taldea, Musika Eskolako fanfarea eta Iñaki Zumalde historialaria.

Izan ere, XVI-XVII. men-



deetan Mexiko kolonizatzen euskaldun asko izan ziren. Tartean, Narriondo baserriko (orain Zulatzena) Cristóbal de Oñate kapitaina eta bere anaia Juan. Cristóbalen Juan semea ere kolonizatzailea izan zen XVI. mendean.

ARETXABALETAKO

3 Diruak banatzen

Udalbatzak 23 milioi pezeta pasatxotan ezarri du Gipuzkoa plazaren urbanizazioa egiteko adjudikazioa. Hantxe, 36 lekuko aparkalekua, zuhaitz

batzuk, eserlekuak eta haur-errentzako jolasak ipini daitezkeen nahi ditu udalak. Lehenago ere ipini zuen enkantean proiektu hau, baina inork ez zuen hartu.

Udalaren jarduerekin segituz, enpresa ekimenak bultzatzeko araudia ere onartu zuen udalbatzak.

ELGETA

4 Gurasoentzako hitzaldia

Herri Eskolako Guraso Elkar-teak eta udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatuta, asteazkenean ikasteko ohiturei eta teknikei buruzko hitzaldia izan zen. Ikasleen gurasoentzat zuzendutakoa zen eta Iñaki Olaskoaga psikologoak eman zuen.

ANTZUOLA

5 San Frantziskora

Unai Idiaketz eta Iker Murua-mendiaraz pilotariak Estatu Batuetako San Frantzisko hirira joango dira otsailaren 10etik 18ra. Errasti eta Inurategirekin joango dira pilotan egitera. Pasa den asteburuan, bestalde, Deban joatutako partidaren Idiaketzek eta Erostarbek Arrasateko pilotarietara irabazi zieten.



Prezio bereziak

PELUQUERIA
MONIKA
ILEPAINDEGIA

- ORRAZKERA
- MOZKETA
- KOLOREA
- PERMANENTEAK
- TRATAMENDUAK
- OSAGARRIAK

Zeharkale Estalia, 4 (Iturriotz eta Erdiko Kale tartean)
ARRASATE • Tel.: 943 79 09 43

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Tratarera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Laguntza terapia.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

TXOKO TABERNA

Gure berezitasunak pintxo eta mckau gozoak

astea bi hitzetan

■ **Garraio gunea**

Deba Garairako garraio gune bat egiteko proiektua apirilerako prest izango du LKS Ingeniaritzak. Deba Garai-ko Mankomunitateak adjudikatutako lan honek kamioi, furgoneta, eta antzeko lana erraztu eta bestelako zerbitzuak eskainiko die. Apar-kaleku moduan erabiltzeaz gain, konponketarako gara-jea, kafetegia, lotarako hotela eta bulegoak ere izatea aurreikusi dute. Dena den, egitasmo honen kokalekua oraindik zehazteke dago. Lastertasun Handiko Trenaren geltokiaren arabera ezarriko dute.

■ **Argiñano berriak**

La Merced ikastetxean sukaldari bikainak omen daude. Hiru hilabeteko sukaldari ikastaroa egin dute

behintzat, Visi Bengoa sukaldariak lagunduta. 60 bat gazte ibili omen dira larunbatero Lanbide Heziketaren lokaletan sukaldaritzan ikasten. La Merced ikastetxea eta Gurasoen Elkar-teak antolatutako eskola orduz kanpoko ekitaldien barnean eginiko ikastaroa dugu hau. Guraso batek baino gehiagok eskertuko du, seguru.

■ **Jabiloren alde**

Larunbatean herriko musika eta dantza taldeek Jabiloren aldeko emanaldia eskaini zuten. Arrasate Musi-kaleko tronboi eta perkusio taldea, Goikobalu, Ohiuska Boskotea eta Lore Gazteak eta Arrostitz dantza taldeak izan ziren protagonista. "Arristi" eta Juanito Saizar izan ziren jaialdiaren aur-

kezleak. Amaia Antzokian izan zen ekitaldia eta jasotako dirua Jabiloren alde emateko da.

■ **Gazte Abertzaleak**

Lizarra-Garaziko hitzarmenaren eta ETak iragarritako su etenaren ondoren Euskal Herriak bizi duen egoeraz aritu ziren Gazte Abertzaleak (GA) deituta joan den ostegunean Monterronen. Mikel Irizar kazetariak zuzenduta, Eusko Alkartasunako gazteriarekin batera, Jarrai eta EGiko gazteak egon ziren gai honen inguruan. Martin Aranburuk, (GA) Asier Aranbarrik, (EGI) eta Igor Ortegak (Jarrai) adierazi zigutenez, "beharrezkoa da gazteriak ere egun bizi dugun uneaz aritzea, dena politikoen esku laga barik".



Kartzelaratze zigorren helburua presoa berea den gizartean txertatzea omen da. Hala dio Konstituzioak, baina ezinezkoa deritzogu gizarte horretatik urrunduz hori lortzeari. Nondik nora txertatu, familia eta adiskideengandik urrunduz?, nola gizarteratu harreman mota guztiak moztuz, ikasketak aurrera eramateko eragozpenak ezarri eta abar? Guzti hau bidegabekeria moduan eta Konstituzioaren oinarrien aurkako legez hartzen bada gehiengo baten ikuspegitik, zailtxo da gizarte honek demokratikotzat sentitzea guzti hori baimentzen duen sistema... Gainera, ETAK behin betirako armak utzi eta bere helburu politikoak bide normalizatuetatik aurrera eramatea ere jokoan baldin badago, are premia handiagoa presoen egoera zuzentzeko behar hori".

**GARBINE BIURRUN
ETA NEKANE SAN MIGEL**
Egunkaria, 99.1.6

HEZIBIDEREN BERRIAK

Hezibide elkarteak bi egitasmoren berri eman zuen joan den ostegunean. Alde batetik, Almen, San Frantzisko Xabier, San Viator eta Umezaintzari buruzko informazioa eskaintzen duen bulego bat ireki du Biteri Etorbidea kalean. Bereziki gurasoei zuzendutako bulego hau, goizez eta arratsaldez egongo da irekita bi hilabetez. Aintzane Gardoki izango da hango arduraduna.

Bestetik, antolaketa berri bat lantzen ari dira elkarteko ikastolen artean zerbitzu eta eskaintza zabalagoa emateko eta kooperatibismoaren balioak berresteko.



Pavimentos AGR

ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:

Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

JUAN RAMON ARANDO AZPIRI

TRATAMENDUAK:

**MEDIKUNTZA
ERREUMATOLOGIA
MASAJEAK**

- Minak
- Giharrak
- Zainak
- Hezurak

Olarte, 43 behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 11 / 943 79 81 01



NON ZAUDETE?

Ainhoa Linaza jaendarra, Ana eta Kristina ahizpa arrasatearren bila dabil. Oporretan ezagutu zituen eta udazkenean Mondragoera etorri eta haien bila ibili zen, baina ez zituen aurkitu. Nonbait bazabiltzate, etorri Arrasate Press-era, pare bat argazki daude zuentzat eta.



Erretiratuak, haurdunak eta ikasleak, moda desfile prestua erakutsi zuten ostiralean, *drag-queen*-ek aurkeztuta. Versacek ikusiko balitu...



TOP-MODELAK AMAIA ANTZOKIAN



PUB HAIZEA



CCI Center for Cultural Interchange
International Exchange Program

Estatu Batuetara CCIrekin

Zer eskeintzen dugun...

- BBB eta UBI Estatu Batuetan
- Unibertsitarietzako lana
- Lan praktikak Europan eta Estatu Batuetan
- Hizkuntza Ikastaroak
- Au Pair
- Haurrentzat udako ikastaroak Europan eta Estatu Batuetan

Zure etorkizunak ez du mugarik

Tel: 944.222.244
608.662.791



3...2...1...TXOTX!!

Astigarragakoen parera, sagardo sasoiari hasiera eman zion Jon Maiak ostegunean Aramaioko Iturrieta sagardotegian. Txalaparta eta trikitriak lagundurik gustura asko dastatu zuen jendeak aurtengo sagardoa. Batzuek beste batzuek baino gehiago...

KAIXO AMATXO!

Unai Gutierrez Gallastegi, urtearen azken egunean jaio behar zen, baina gustura asko zegoen amaren sabelean eta hogei eguneko atzerapenarekin etorri zen mundu honetara. Lau kilo pisatu zituen, morrosko ederra! Zorionak!!



SARRIEGI UMEZAINTZAN

Donostiara joan ezin izan genuenok, Mondragoen izan genuen danborrada entzuteko aukera. Erritmoa apurtxo bat desberdina izan zen Donostiakoaren ondoan, baina ahalegina eta gogoa antzekoak.



S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

TTUKUN


Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

Senideak Elkartea



Kilometroaz kilometro



Senideek asteartero egiten dituzte enkarteladak.

1 991ko urriaren 6an sortu zen "Senideak" elkartea. Euskal preso politikoaren senitartekoen batu beharra sentitu zuten, beren artean antolatzeko premia. Lau urte lehenago Enrique Múgica Herzogek sakabanaketa politika jarri zuen abian euskal preso politikoaren artean. Euskal gizartearen tentsio nahiko gogorra bizi zen, eta borroka maila guztiak dexente piztuta zeuden.

Gartzeletako egoera ere

14.840 kilometro. Horixe da Arrasateko euskal preso politikoaren senideek asteburuero joan-etorrian egiten duten distantziaren batura. **15 dira Mondragoeko preso politikoak. 989, beraz, bisita bakoitzeko, familia artekoek egiten dituzten kilometroak batezbeste.** Langraitzeko espetxean baleude, asteburuero **11 joan-etorri egiteko adina. Deserriratuak, berriz, hiru dira: Arbe eta Axun Venezuelan daude, Euskal Herritik 10.000 kilometrorra. Mikel Piedehierro Mexikon. Tartekeo distantzia, ordea, luzeegia da asteburuero egiteko.**

gero eta zorrotzagoa zen. Hori dela eta, horri erantzun bat eman behar zitzaiola erabaki zuten presoaren familia artekoek.

ENKARTELADAK

Arrasateko senideak ere aspalditxo hasi ziren elkartzen; martitzeno egin ohi dituzte enkarteladak. Senitartekoen

fotografiak eta "etxean nahi ditugu" kartelak soinean, arratsko zazpitan biltzen dira; astea joan eta astea etorri, Sebero Altube enparantzak Senideen eskaeren lekuko isila izaten darrai; "etxean nahi dituzten" arren, etxera ekaritzen ez dituzten isla.

Begiratu bat eginez gero, 15 preso politikoren aurpegiak antzeman daitezke karteletan. Horieta hiru besterik ez daude Euskal Herriko espetxeetan: Kepa Urrea eta Pedro Guridi Langraitzen eta Luis

800 kilometroko gizatasun eske

Mari Azkargorta Martutenen. Gainontzekoak Espainiako eta Frantziako presondegietan daude. Pilar Mondragon eta Arantxa Sasiain Frantziako Fleury Megorisen; dozenarako falta diren hamarrak, berriz, Espainiako zazpi espetxetan "apopilo".

Horretaz gain, hilero batzarrik egiten dituzte. Eskualde bakoitzak hainbat ordezkari ditu. Horiek herrialdeetako batzarretan hartzen dute parte, eta senideen nazional mailako ordezkariak daude horien gainetik.

SEMEA VENEZUELAN

Maria, Mari eta Jaione ere makinatxo bat arratsetan elkartu izan dira Seberoko plaza bazterrean. Mariren seme Eugenio Barrutiabengoak, "Arbe"k, Venezuelan daramatza hamalau urte. Marik, ordea, orain hogeita bat urte ikusi zuen etxean azkenengoz, berak dioskun moduan "kanpoan", baitarama *Arbe*k bizi-modu erdia. Erreskadan kontatu dizkigu bere semearen hemendik-harakoak, dotrina-ko haurrek Aita Gurea esan ohi duten abiadan: "Frantzian 9 hilabete igaro zituen gartzelan. Lehenengo Baionan, gero Pauen, handik Marsellara, ondoren konfinatuta egon zen, eta azkenean Venezuelara eramán zuten. Hantxe dago, baina beti honantz begira". Bera ere "harantz" hainbat begiratualdi egindako ama



Joan den ekainaren 26an egindako kale agerraldia.

dela antzematen zaio Mariri, ordea. Tamalez, bere etxeko leihotik urrunegi ikusten da 10.000 kilometrora dagoen Venezuela. Horregatik joaten da bi urtetik behin semea bisitatzerara.

800 KILOMETRORA

Maria eta Jaione asteburu gehientsuenetan joan izan dira beren semea eta senarra bisitatzerara. Mariak Jaenen du

semea, eta 800 kilometro egin behar izaten ditu semea 40 minutuz ikusteko. Askoz ere nahiago luke bere semea Euskal Herriko espetxeren batean ikusi, eta ez du hori gertatuko den itxaropenik galdu: "Itxaropena? Itxaropena beti eduki behar da. Halere, presoak Euskal Herriratzea guk lortu behar dugu. Guk lortu ezean, eman ez digute ezer emango", dio lasai asko.

Jaioneren senar Goio, aldiz, Ocañan dago. Honek ere astero 40 minutuko bisita izaten du Goiorekin. Hilean birritan, berriz, "vis a vis" hots egiten dioten aurrez-aurreko enkontrua. Hiru hiletik behin "konbibentzia" izeneko hartuemana ere eduki behar lukete. Hauen bidez presoari seme-alabekin egoteko aukera ematen zaio. Dena den, Jaione jakinarazi duenez, "espetxe bakoitzeko zuzendariak nahi duena egiten du espetxeko legearekin. Nahiz eta epailearengana joan eta honek arrazoia guri eman, berdin da".

SAKABANAKETA

Sakabanaketaren bidez preso politikoa gizartetik ezezik preso politikoen taldetik ere isolatu nahi da. Gizartetik isolatzeak familia eta adiskideen bisitak zaildu egiten ditu; are eta gehiago senidea adindua denean. Honetaz gain, gastu ekonomikoak ere izugarri gehitzen dira, baina beste hainbat buruhauste ere badakartza urruntasunak. Esate baterako, pasa den urtean 13 istripu izan dituzte errepideetan Euskal Herriko senide edo lagunek.

Mariak, ordea, Euskal Herritik urrun egotea baino gartzela barruan isolatuta egotea, horixe dela sakabanaketa dio: "Euskal Herritik urrun egotea senideentzako da gogorra. Halere, bisitatzerara

Senideen eskaera oinarrizkoenak

- Zigorren hiru laurdenak bete duten preso baldintzapeko askatasuna eskaintzea. Kode Penalaren 90.artikuluak eta gartzela araudiaren 98.ak jasotzen dute eskubide hori. Arrasateko Senideak taldeak Jon Agirre eta Pedro Guridirentzat aldarrikatzen dute eskubide hori. Jon Agirre Huelvan dago eta Pedro Guridi Langraitzen, senideek "legezko bahiketa" deitzen dioten egoeran.
- Euskal preso politikoek etxetik gertuen dituzten espetxeetan bete dezatela zigorra. Eskubide hau Gartzeletako Lege Organiko Orokorrak 12.1 artikuluan jasotzen du.
- Sendaezinezko gaixotasunak dituzten presoek baldintzapeko askatasuna izan dezatela. Kode Penalaren 92.artikuluak jorratzen du aipatu eskubidea.



Senideek duela zenbait urte egindako kale agerraldia.



1990eko Tippi ttapa ibilaldia, Arrasatetik pasa zenean.

“Presondegietako bakardadea da presoarentzat benetako sakabanaketa”

joateko dirua handik edo hemendik beti lortzen da. Presondegiko bakardadea da presoarentzat benetako sakabanaketa”. Jaionek, Mariaren hariari jarraituz, honek esandakoa adibide batekin zehaztu nahi izan du: “Gautxori eta Jon Agirre Tenerifen egon zirenean, ez zuten elkar ikusten, modulo ezberdinetan baitzeuden. Hori da gartzeletako sakabanaketa, eta hori da gogorrena: jakitea herritar bat alboan duzula Tenerifen, eta ezin ikustea”.

TESTUINGURU BERRIA

Lizarra-Garaziko akordioa sinatu eta ETak mugarik gabeko su etena aldarrikatu zuenetik, testuinguru politiko berria bizi dugu Euskal Herrian. Bilbon egin zen kale agerraldi jendetsua da horren lekuko. Mariak dioenez, ordea, senideentzat ez da ezer aldatu: “Kanariar Uharteetatik Andaluziara eraman dituzte 21 preso, eta Barriouevo eta Vera kanpora. Hori guretzat burla bat izan da, lotsagarria”.

Maidier Osa

Lidl supermerkatu kate alemana oraingoz ez da etorriko

Lidl Alemaniako autozerbitzu deskontuen supermerkatu katea da. 1998ko bukaerarako San Andres auzoan gisa horretako supermerkatu bat zabalteko asmoa zuen. Dena den, Alemaniako enpresa horrek Arrasateko Udalari supermerkatuaren erakuntza atzeratzeko eskaera egin dio. Arrasateko Udalak onartu egin zuen enpresaren eskaera hori.

1997ko bukaeran onartu zuen Arrasateko Udalak supermerkatua eraikitzea,

Mugarri auto kontzesionarioaren alboan. Hasiere batean, Lidleko arduradunek 1.000 metro kuadroko eremuan eraiki nahi zuten supermerkatua. Egingo balitz, 110 autorentzako parkina izango luke.

Zabalduko balitz, Arrasaten irekiko litzatekeen laugarren janari banaketa enpresa litzateke.

1989an Eroski zabaldutuzen Musakolan, 1994an BMk zabaldutuzen San Andresen, eta bi urte beranduago Día-k ireki zituen

ateak Takolo inguruan.

Lidl deskontu erako supermerkatu katea da. Jeneralean 800 metro kuadroko dendak jartzen ditu, 700 bat produktuekin, gehienak oinarritzkoenak. Marka ezezagunekin egiten du lan, baina kalitate frogatukoak.

Langile gutxiago izaten ditu, produktuak paletetan egoten direlako jarrita edo kaxetan. Ondorioz, salgaiak beste dendetan baino %10-15 merkeagoak izaten dira.



Ford Mugarri auto saltokiaren ondoan jarriko litzateke Lidl.

Euroa

Zergatik ez da asmatu beste formula bat hainbeste hamarreko saihesteko?

Jauziak ikaragarriak izango liratekeelako. Gorantz eginez gero, pezeta debalatu egingo litzateke eta beherantz eginez gero birbalaratuko litzateke. Ikuspegi ekonomiko batetik ezerk ez luke hori justifikatuko.

Estaduak, bestalde, ez luke dirurik aurreratuko funtzionarioen pensioak borobilduz gero. Kasu batzuetan gorantz borobilduko bailitzateke eta bestetetan beherantz. Parra.

Euro baten balioa

166,3 pta



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Atezain argia

Insert Coin-Pepelus taldeen arteko neurketan atera genuen aste honetako argazkia. Insert Coin taldeko atezaina zuhur ibili zen larunbatean. Nahiz eta bost gol sartu zizkioten, ez zuen burua apurtu baloiaren bila joaterakoan. Ateari buelta eman beharrean, sarea jaso eta kitto!

Atezain argia, bai horixe!

Laburrak

■ BALON ROJO KALERA

Larunbatean zen jokatzekoa Orlando Piratas-Balon Rojo taldeen arteko norgehiagoka, baina Balon Rojo taldea ez zen agertu. Hori dela eta, talde bat gutxiago dago aurtengo Zaldibarko txapelketan.

Jadanik bost talde gutxiago ari dira Zaldibarren. Martxa honetan ez dakigu zenbat talde geldituko diren bigarren

aldirako. Dena den, oraindik ere aurreko urtetako estatistiken parean ari gara. Aurreko urteetan zortzi bat talde jausi izan dira lehenengo aldian.

■ ATZERATUTAKO NORGEHIAGOKAK

Orain dela bi aste hiru neurketa bertan behera gelditu ziren, gripea zela eta. Dagoeneko antolatzaileek eta tal-

deek batera neurketa horiek nozi joaktutako diren adostu dute. Horrela, 10. jardunaldiko Leya-Aldibi norgehiagoka asteburu honetan jokatuko da. Igandean izango da, eguerdiko 13:00etan. Beraz, bi talde hauek bi norgehiagoka izango dituzte asteburu honetan, 10. eta 12. jardunaldiei dagozkienak, hain zuzen ere.

Potrosorri-AT Celaya taldeen arteko berriz, B multzoan daudenez, eta multzo honetan talde asko kaleratu direnez, ez dute asteburu honetan, baizik eta atsedena tokatzen zaien asteburuan.

Azken norgehiagoka, Sokoakoak-Bar Nuevo, otsailaren 14an, igandean, San Valentin egunean, jokatuko da.



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA



DOCKERS®
pants by
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
ORLANDO PIRA.	11	0	0	67	24		22
LONTXO TAB.	11	9	2	0	67	22	20
AC SURKOS	11	7	3	1	61	78	17
PEPELUS	11	7	3	1	43	30	17
INSERT COIN	11	8	1	2	46	36	17
XHASSS UGAR.	11	7	2	2	65	38	16
ALDIBI	10	6	0	4	61	27	12
LEYA	10	6	0	4	35	27	12
KOM. ALPARGAT	11	5	1	5	60	32	11
KE OXTIAS	11	4	1	6	38	33	9
SAUKELU SCRE.	11	4	1	6	26	33	9
SERENGETI HC	11	3	1	7	33	50	7
BUKANAK	11	3	0	8	35	59	6
BALON ROJO	11	2	2	7	25	60	6
ALAI GOZOKIAK	11	2	1	8	28	56	5
REX 23	11	2	0	9	28	67	4
ROTOR BOLBO.	11	1	2	8	23	72	4
MAKAI	11	1	0	10	27	64	2

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
TXANTXIKU KIR.	11	10	0	1	93	21	20
KKJAURI	11	8	2	1	48	27	18
IRATI STS	11	8	1	2	64	28	17
GARAJE OSKAR	11	8	1	2	49	25	17
NARANJA MEC.	11	7	2	2	76	41	16
LOS HEREDIA	11	7	1	3	27	34	15
AURRERA BOLIE	11	7	0	4	46	32	14
KOKA JUNIORS	11	5	2	4	30	33	12
DKB	11	5	1	5	39	43	11
DIEGO ANTONIO	11	4	3	4	39	50	11
ZOTZ	11	4	2	5	42	39	10
AT CELAYA	10	4	1	5	28	38	9
POTOSORRI	10	4	0	6	27	65	8
LAUTERBRUNENN	11	1	4	6	22	40	5
BORROCK & ROLL	11	2	2	7	20	29	5
ATERPE KAFE.	11	1	1	9	20	53	3
PUB ARROGOI	11	1	0	10	7	30	2
ETXE MOBEL	11	0	1	10	20	69	1



Hurrengo partidak

Urtarrilak 30, larunbata

Zaldibar
 09:50 Rex 23 - Serengeti HC
 11:00 Decadencia - EPEH
 12:00 Urrera Bol. - Naran Mec.
 13:00 Leya - AC Surkos
 14:00 Potroak - Jotakabau
 15:00 Insert Coin - Xhasss
 16:00 DKB - AT Celaya
 17:00 Lontxo Taberna - Aldibi
 18:00 Dribling - Totem
 19:00 Jako al Rey - You Know

Iturripe A

13:00 Saukelu - Ke Oxtias
 14:00 Gar. Oscar - Diego Ant.
 15:00 Rotor. - Alai Gozokiak
 16:00 Betrayer - Eusko Label

Iturripe B

13:00 Etxe Mobil - Zotz
 14:00 Orlando Pir. - Kom. Alpar.
 15:00 Potosorri - Koka Juniors
 16:00 KKJauri - Txantxiku Kir.

Urtarrilak 31, igandea

09:50 Con. Luso - Aita Menni
 11:00 Fraguel Gol - Bar Nuevo
 12:00 Leya - Aldibi
 13:00 Bukanak - Pepelus

Atsedena:

A taldea: Makai
B taldea: Irati STS, Heredia
D taldea: Sokoakoak

Emaitzak

A TALDEA

Bukanak 2 - Leya 4
 Lontxo Tab. 6 - Alai Gozokiak 2
 Saukelu Scrc. 3 - Kom. Alpargat 2
 Rex 23 2 - Komando Alpargat 2
 Insert Coin 7 - Pepelus 5
 Serengeti HC 3 - AC Surkos 3
 Xhasss Ugarte 2 - Ke Oxtias 2
 Orlando Piratas 1 - Balon Rojo 0
 Makai 4 - Rotor de Bolbogrado 5

B TALDEA

Borrock & Roll 1 - Potosorri 0
 DKB 3 - Txantxiku Kirolak 14
 Aurrera Bolie 5 - Diego Antonio 7
 Etxe Mobil 0 - AT Celaya 2
 Los Heredia 4 - Irati STS 3
 Zotz 4 - Koka Juniors 1
 Lauterbrunnen 0 - Naran. Mec. 1
 Garaje Oscar 1 - Aterpe Kafete. 0
 Pub Arrogoi 1 - KKJauri - 0

D TALDEA

Construc. Luso 3 - Jako al Rey 7
 Potroak 5 - Branka Taberna 5
 Fraguel Gol 3 - Jotakabau 4
 Dribling 3 - Aita Menni 2010 4
 Bar Nuevo 2 - You Know 3
 Totem 9 - EPEH 0
 Sokoakoak 2 - Betrayer 5
 Eusko Label 2 - Kamasutra 14

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
YOU KNOW	10	10	0	0	54	18	20
JOTAKABAU	11	8	1	2	30	22	17
AITA MENNI 2010	10	7	1	2	39	28	15
DRIBLING	10	6	2	2	48	35	14
POTROAK	10	6	2	2	48	30	14
TOTEM	11	6	1	4	45	24	13
EPEH	10	5	3	2	38	39	13
KAMASUTRA	10	4	2	4	49	31	10
BRANKA TAB.	10	3	4	3	43	37	10
SOKOAKOAK	10	5	0	5	33	35	10
FRAGEL GOL	10	3	3	4	31	32	9
BAR NUEVO	9	3	2	4	30	30	8
DECADENCIA	10	2	3	5	21	21	7
JAKO AL REY	11	2	3	6	35	43	7
BETRAYER	10	3	1	6	32	40	7
EUSKO LABEL	11	0	0	11	24	84	0
CONSTRUC. LUSO	11	0	0	11	17	68	0

ARRASATE KIROLAK
 Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
 eta ostiralean
 Setatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99



Zuri
 Garbiketak

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 943 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.



Ezin finalean

Ez zuten zorterik izan Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko bi atletek asteburuan Anoetan jokatu ziren Euskal Herriko pista estaliko txapelketan. Jonathan Perez kaleratu egin zuten pertika jauzian. Felix Sanchezek ere ezin izan zuen 800m.ko finalerako txartela lortu.

Igandean Elgoibarren jokatu zen Juan Mugerza krosean, bestalde, herriko hiru beteranok hartu zuten parte. Jabier Mentxakak bakarrik lortu zuen helmugaratzea. Mentxaka 34. izan zen nazioarteko krosean.

Borrokalaria onenak

Gipuzkoako haur eta gazte mailako Judo txapelketa jokatu zen larunbatean, Erreterian. Arrasateko hiru judolarik Euskal Herriko txapelketarako txartela zuten jokoan. Gazte mailan, Itziar Zabalak lehen tokian bukatu zuen eta bera izango da Erreterian otsailaren hasieran Euskal Herriko txapelketa jokatzeko. Leire Zabala hirugarren izan zen haur mailan eta Haritz Lazkano bosgarren, gazte mailan.

Aukea sariak 98

Santi Etxebarria, "Zurdo de Mondragon" pilotari ohiak, Mari Jose Gil korrikalari beterranoak eta Motorzale Elkar-teak, otsailaren 5ean jasoko dituzte aurtengo Aukea sariak. Sari banaketa udaletxeko pleno aretoan egingo da, arrasateko 18:30etan.

Ekitaldiari hasiera emateko Eukeni Olabarrieta medikuak hitzaldi motz bat eskainiko du osasuna eta kirolaren inguruan.



Uribarren eta Jimenez, haur mailan txapeldun.

Txapelak herrian gelditu ziren

Aurrebenjaminetan Aitor Fernandez eta Ibai Bolinaga eta haur mailan Uribarren II.a eta Jimenez II.a izan ziren eskualdeko eskuz binakako pilota txapelketako txapeldunak. Fernandezek eta Bolinagak 18 eta 4 irabazi zuten Soralezko Albizua eta Beñaten aurka. Norbaino nor poli-

ta izan zen, zazpi eta zorti urteko mutikoez jokatu zutena. Soraleztarrek 16 partida zihozten galdu gabe. Mondragoetarrek lortu zuten plentxiarren bolada apurtzea. Bolinagak ez zuen pilotarik galdu eta Fernandezek pilota guztiak hormari pegatuta laga zituen sakez.

Haur mailan Uribarren II.a eta Jimenez II.a aritu ziren Abasolo eta Urkiaren aurka. Abasolo-Urkiak ostegunean sorpresa izan ziren finalerdietan. Uribarrenek indar handiz jokatu zuen. Airez sartu zituen pilota gehienak. Azkenean, 7tan laga zituzten Abasolo-Urkiak.

Espainiako karate txapelketan hirugarren

Erik Martin Saioa Karate Gimnasioko karateka mondragoetarra hirugarren gelditu zen El Ferrolen jokatu berri den Espainiako karate txapelketan. 18 urteko gaztea, Euskal Herriko selekzioarekin abiatu zen Galiziarra joan den asteburuan. Larunbatean taldeka aritu ziren kumite lehiak eta taldeka ere brontzezko domina lortu zuten euskaldunek, Madril eta Kantabriaren atzetik.

Igandean izan zen banakako txapelketa. Erikek Madrilgo Moralesen aurka lehiatu behar izan zuen finalerdietan, baina azkenean



Erik Martin.

hirugarren tokian gelditu zen.

Iaz ere Espainiako txapelketan izan zen Erik.

Orduan laugarren tokian gelditu zen junior mailan eta 1997an ez zen horren ondo ibili. Aurten bere lanaren errekonozimendua iritsi zaio neurri batean, eta hirugarrenean, brontzezko domina lortu du, junior mailan.

Erikek aitortu zigunez, gripeak jota egon zen txapelketaren aurretik baina horrek, bere ustez, ez zion eragin. Orain, ordea, hilabete batez bajaran egon beharko da. Horrenbeste kolpe esku-mako hankan hezurren higitzea eragin diote, eta ebakuntza egitea beste erremediorik ez du izango.



ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

LIRAIN

Karibeko dantzak (saltsa, merengea,...)

- Otsailetik aurrera larunbatetan, goiz eta arratsaldez
- Talde mugatuak

Eman izena lehenbailehen!

Aerobic, yoga, power-dunbell,
mantenimendu gimnasia...

Gorputzerako tratamenduak (OSTAR)

- Erreafirmatu
- Moldekatu
- Bolumena gutxitu

Saioa: 3.300 pta.

10 saio eginez, hamaikagarrena doan!

Zutikako eta etzandako **SOLARIUMAK** dutxarekin

10 saio + 1 doan: 9.000 pta.

MAKILAJE IRAUNKORRA

Lehen



Orain!



- Hiru urteko konponbidea.
- Ezpainen akatsak zuzendu (txikitu, handitu...).
- Ahaztu ezpainak egunero margotzeko lanaz!

Bixente Ferrer kalea • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 17

(Sarrera: Mondragon Hotelaren ondoan)

Gipuzkoako Judo txapelduna junior milan

ITZIAR ZABALA

*“Lortutakoa ikusiz gero,
gustura nago”*

— Txapelketa zaila izan zen?

— Ea zer egiten nuen ikustera joan nintzen, ez nekien eta, zeintzuren kontra aritu behar nintzen. Dena dela, ez ginen asko aritu eta irabazteko aukera ikusi nuen. Gainera, katarroa nuela joan nintzen eta ez nekien nola joango zitzaidan.

— Gustura lehen tokiarekin?

— Lortutakoa ikusi eta gero, baietz esan behar.

— Zer espero duzu otsailean Euskal Herriko txapelketan?

— Ez dakit. Gipuzkoako txapelketara joan nintzen bezala joango naiz, noren aurka lehiatu behar naizen jakin barik. Nire pixuarekin jende gutxi aritzen da, baina hantxe ikusi behar.

— Lehen ere irabazi duzu honelakorik?


— Iaz ez nuen ezer lortu, txapelketa guztietan azkena gelditu nintzen. Orain dela bi urte, ordea, lehenengo sailkatu nintzen maila baxuagoan.

— Zenbat denbora daramazu kirol hau egiten?

— Dagoeneko zortzi urte daramat taldean, Julio Gallego azpeitiarrarekin entrenatzen.

— Zenbat jende ari zarete taldean?

— Sei urtetik hamalau urte bitartean hogeitabat lagun eta hortik gora, hamar bat. Aurten hiru lagun berri hasi dira nagusien taldean. Ea jende gehiago animatzen den.



SASKIBALOA Igo nahian



Datorren astean igotzen da *play off*eko partida jokatu du senior mailako Arrasate Saskibaloia taldeak. Joan den asteburuan Iturripen garaipena eskuratu zuten Danel eta Zesarren mutilek. Iruñeko Larraona taldearen aurka aritu ziren eta 86 eta 67 irabazi zuten. Ez zen, hala ere, norgehiagoka erraza izan, tartet handiz irabazi zuten arren.

Arrasatek ez zuen joko onik erakutsi lehen zatian, baina kanpoko jaurtitzaileri eta bigarren zatian izandako erreakzioari esker azkenean, 86 eta 67 irabazi zuten. Jagoba Gamarra bere onera etorri da, baina Jokin Lazpiur, Iban Garrido, Mikel San Migel eta Eneko Alvarezek lesionaturik segitzen dute.

Larunbatean, Arrigorriagako Padura taldearen aurka jokatu dute. Ezinbestekoa da garaipena, taldea sailkapeneko lehen tokietan segitzeko.

FUTBOLA Etxean oraindik ezin



Entrenatzailez aldatu arren, preferente mailako Mondra taldeak etxean irabazi gabe segitzen du. Larunbatean Mutrikuren aurka aritu ziren Letonaren mutilak, baina norgehiagoka 0 eta 0 amaitu zen. Mondrak 16. tokian dago, 22 punturakin. Datorren igandean, lideerraren aurka neurtu beharko ditu indarrak. Aloña Mendi-Arrasate derbia jokatu da, arratsaldeko 16:00etan.

Nesken futbol taldeak ere etxean jokatu zuten asteburuan. Añorgaren aurka aritu ziren Esti Loitiren neskek eta

bina berdindu zuten. Hasiere batean galtzen hasi ziren eta Ainhoak eta Bakartxok lortutako golei esker, partida berdintzea lortu zuten. Aste honetan Lesakako Gure Txokoa taldearen aurka arituko dira, nazional mailako ligan ari diren neskek.

ESKUBALOA Sekulako egurra



Senior mailako Arrasate Eskubaloia taldeak sekulako egurra jaso zuen Iturripen joan den larunbatean. Balerdiren taldea Errenteriko Ereintza taldearen aurka aritu zen. Mondragoetarrek ezin izan zuten ezer egin Ereintzaren defentsa sendoaren aurka. Emaizak adierazten du norgehiagoka nola joan zen: 10 eta 21, errenteriatarren alde.

Aste honetan Portugaleten jokatu dute, larunbatean, 16:30etan.

ERRUGBIA Etxean nagusi



Bigarren segitzen du sailkapenean senior mailako herriko errugbi taldeak.

Larunbatean Getxo B taldearen aurka aritu ziren eta etxean jaun eta jabe direla erakutsi zuten Patxi Gogorabellen mutilek. Erasora jokatu zuten mondragoetarrek eta atsedenaldirako 6 minutu falta zirenean, Potatok entseiu bat lortu zuten, 14 eta 10 jarriz markagailuan. Bigarren zatian Gorosabel bera zelairatu zen eta entseiu bat ere lortu zuten. Norgehiagoka 29 eta 19 amaitu zen.

Aste honetan, Atletico San Sebastian taldearen aurka jokatu dute Patxi Gorosabellen mutilek, Bera-Bera errugbi zelaian, Donostian.



BAD F-LINE, MUSIKA TALDEA

“Pentsarazteko letrak gustatzen zaizkigu”

Bad F-Line taldea Txema Arzamendik, Rakel Guridik, Iñaki Bengoak eta “Tadeos”ek osatzen dute. Desobediencia zigilu madrildarrarekin disko berria aterako dute. 10 kantu izango ditu eta urtarrila bukaerarako kalean egongo da.

— Noiz sortu zen taldea?

— 96ko udan. Txema eta biok (Iñakik) talde bat osatzeko asmoa genuen, baina ez genuen jende egokia aurkitzen. Biok bakarrik hasi eta gero Rakel ezagutu genuen. Aurrerago gitarrajole baten premia sentitu genuen, eta Pakorengana hurbildu ginen. Bera da Brutal Melodyko gitarrajolea. Laurok grabatu genuen lehen minidiskoa, 97ko irailean. Gero Pakok ezin izan zuen taldeaz jarraitu, eta Tadeos gasteiztarra sartu zen taldean.

— Laster aterako den diskoaren grabaketa nola egin duzue?

— Hasiera batean ez genuen disko etxeekin ezer lotuta, eta gu ausartu ginen pausoa ematera. Sociedad Alcoholicako gitarrajole Jimmy izan da produktorea. Grabatu ostean diskoetxeetara bidali eta erantzun ona jaso dugu. Diskoaren azala Goio Aranek egin du, eta bideoa Dragoi Produkzioak taldeak.

— Nola egin duzue topo Desobediencia diskoetxearekin?

— Zigilu hau berria da, eta gu izan

gara fitxatu gaituzten lehen taldea. Madrilen kontzertu bat ikustera joan ginenan disketxe horretako bat ezagutu genuen, eta disko eman genion entzun zezan. Hurrengo egunean hots egin zigun.

— Zertaz dihardute letrak?

— Nahiko arraroak dira. Pentsarazteko letrak gustatzen zaizkigu.

— Bigarren diskoak badu antzekotasunik lehenengoarekin?

— Guretzat aldaketa handia dago, baina kanpoko jendearentzat ez. Beharbada hau komertzialagoa dela diote.

— Zein da zuen jotzeko modua?

— *Rock&roll* taldeekin alderatuz gero, diferentia da guk egiten dugun musika. Ez dugu bateriarik, ezta bajurik ere... Taldearen osaketa zerbait ezberdina da. Abestiak konposatu eta entseiatzeko modua ere ezberdina da. Gure oinarria ordenagailuak, aplikadoreak... dira. Dena den, gero eta jende gehiagok konposatzen du ordenagailu bidez.

— Kontzertuetan nola antolatzen zarete?

— Guk egiten dugun musika motak hotz fama du. Hasteko, bateriaren eta bajuaren zuloak tapatu behar dira. Oholtza gainean *rock&roll* talde baten jarrera izaten saiatzen gara, baina beste gauza batzuen babesa bilatzen dugu: argia, oihalak...

aste gazte

■ LANA

• Ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko ordezkagaien zerrenden irekialdia Gipuzkoako Lanbide Heziketarako, frantsesa, grekoa, musika, gorputz hezkuntza, teknologia, metaleko praktikak, eta beste hainbat arlotarako. Epea: otsailak 5.

• Aretxabaletako Udalak liburutegi laguntzaile bat behar du. Epea: EAOan argitaratu zain geratzen da.

■ LEHIAKETAK

• 1999ko martxoaren 8ko III. Hormirudi lehiaketa. Arrasateko Emakume Sailak antolatuta. “Martxoak 8: demokrazia ere emakumeontzat” leloa harturik, teknika librean egin ahal izango dira lanak. Epea: otsailak 10.

• Arrasateko Hies Ekime-naren eskutik, komiki lehiaketa, “Déjate echar un lazo” izenburupean. Lanak zuri-beltez, 2-4 orriko luzeran eta DIN A-4 edo DIN A-3 an aurkeztu behar dira, gaitzat VIH/HIESa edo Sexu Segurua harturik. Epea: martxoaren lehen eguna.

■ GAZTE IKASTAROAK

• Euskal dantzak: 10-14 urte arteko zuzendutako ikastaroa. Asteazkenetan, 18:30etatik 19:30etara “Lore Gazteak”en lokalean. Matrikula 1.000 pta.

• Txalaparta: otsailaren 12tik aurrera, ostiraletan arratsaldeko 20:00etan eta larunbatetan goizeko 10:00etan. Matrikula 2.000 pta.

Berri gehiagarako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

Bi luma eta Xabier Muguruza Kultur Errotarekin Arrasaten

Bi Luma taldea bi aretxaballetarrek osatzen dute: Oier Sarasuak eta Andonik. Jotzen duten musika leuntzat definitzen dute, eta baita hitzen fonetika ere. Hortik datorkio taldeari izena.

Duela lau bat urte hasi ziren gitarra jotzen, eta ikasi ere horrela ikasi omen dute: elkarrekin joaz. Disfrutatzea eta ikastea zuten helburu hasiera batean. Denborak aurrera egin ahala, ordea, zerbait gehiago egin zezaketela iruditu zitzaien. Horixe esan du Oier Sarasuak: "abestiak sortuz joan ginen, eta abesti batzuk pilatu zitzaizkigunean hasi ginen kontu hau serioago hartzen".

IZARTEGIA KANTAGAI

Hamabost bat kantu dituzte dagoeneko, guztiak beraiek



Bi Luma bikotea.

asmatuta. Hizkiak Jon Sarasuak jartzen dizkie. Abesti guztiak lotura dute, izartegiari buruz baitihardute. Izartegiak garai batean zituen euskal izenak hartzen dituzte aitzakia gisa. Horietatik abiatuta,

izartegi bakoitzaren izenak iradokitzen dienaz egiten dute gogoeta. Oierrek dioenez, "abesti bakoitzak gai batez dihardu, baina aldi berean osotasun bat dute. Hizkiak kezkatzen gaituzten errealitatei

buruzkoak dira: euskara, euskal gatazka, iparra eta hegoaren arteko banaketa...

XABIER MUGURUZA ERE BAI

Orain arte zortzi kontzertu eman dituzte. Bederatzigarrena, berriz, datorren domekan izango dute. Kultura Errotaren barnean Xabier Muguruzarekin batera joko dute Amaia antzokiko sarreran, arratsaldeko 19:30etatik aurrera. Sarrera 300 pta izango da, eta emanaldiak iraun bitartean, taberna zerbitzua izango da.

Hemendik eta maiztera bitartean, ordea, izango da kultura emankizun gehiago, Tapia eta Leturia, Mikel Urdangarin kantaria, Koldo Ameztoty ipuin kontalaria eta Iñaki Salvadorren taldea izango baitira, besteak beste.

Abian dira Arrasate 98 lehiaketak

Aurten hamabigarren aldiz egingo dira Arrasate 98 lehiaketak. Aurten, ordea, zehaztapen batzuk egin dituzte antolatzaile lanetan ibiltzen diren AED elkartekoei. Itxaro Artolak jakinarazi digunez, "hiru urte dela sail batzuk gehitu genizkion lehiaketari: gure eskualdeko euskararen testigantzak eta ikusentzueneko gidoigintza. Aur-

ten, ordea, Ugaran bailarako euskara ere sartu nahi izan dugu. Horretaz gain, grabaketen sailean banaketa egin dugu: elkarrizketak eta kontakizunak".

Bestalde, gidoigintzaren sailari bultzada eman beharra ikusi dute. Hori dela eta, irratia hautatu dute hedabide bezala, eta honen aldeko apustua egin dute: "gure lehiake-

ten helburu nagusienetako bat saritutako lanak kalera tzea da, eta telebista aukeratu gero gaitzagoa izango litzateke. Bideoak, egilearentzat izugarritzko gastua ekartzen du, eta horrek atzera eragiten zion jendeari. Irrati grabaketa bat egitea, ordea, ez da hain garestia egilearentzat, eta Arrasate Irratian ere gero eta jende gehiagok

hartzen du parte. Ikastoletan ere irrati lantegiak egiten dira, eta beraz, irratia dinami-ka nahiko barneratuta dago".

Lanak otsailaren 26a baino lehen aurkeztu beharko dira AED elkartean. Era berean, finalisten zerrenda apirilaren 8an emango da ezagutzera, eta sari banaketa apirilaren 23an izango da, Monterron kultura etxean.

"EDERTU"

Ileapaindegia • Solariuma • Depilazioa



San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28 • ARRASATE

Solarium eskaintza berezia!
10 saio=5.000 pta.

Sagardotegia



Trotx egin!

Astelehenetik asteazkenera enkarguz Ostegunetik igandera zabalik

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

Joxe Arriaran, Etiopia eta udalaren kultura agenda aste honetan

Eskaintza erakargarria egin digu datorren asterako Arrasate Telebistak: aspaldiko kontuak, bidaiak eta kultura izango dira plater nagusiak, betiko albistegiekin eta kirolekin batera, jakina.

Asteartean Etiopiar bidaiatzeko aukera emango digu Garikoitz Kortazarrek. Miren Uribetxebarria eskoriatzarra izango du lagun horretan. Honek iazko udan Etiopian zehar egin zuen txangoaren berri emango digu, argazkiez lagunduta. Miren bidaiari amorratua da. Erta-meriketan ibilia da brigadista lanetan, baita Vietnamen eta Indian ere. Izango du zer kontaturik.

Asteazkenean, berriz, Joxe Arriaran, Arriaran II.a, izango du Aurrez Aurre Karme-



Joxe Arriaran Aurrez aurre saioan izango da.

Zuazubiskarrek. Arrasateko pertsonarik ezagunenetakoa dugu Joxe, maila handiko txapelduna izan zelako eta izaera apal eta atseginekoa dela-

ko, abegikorra eta alaia. *Mondragones*, Atanotarrak, Pako anaia, Bolinaga, *Zurdo*, Rete-gi, Asegarce eta Aspe, Arrasateko pilotalekua... Mintza-

gai ugari albistegi osterako.

Kaleidoskopio saioan Jon Garai izango da gonbidatu nagusia. Arrasateko Udaleko Kultura teknikariak aurtengo kultura agendaz hitz egingo du. Jonek esperientzia luzea du gai hauetan eta bere iritziak beti izango dira kontuan hartzekoak. Horrez gain, Betirtze Iñurritegik erreportaje bat prestatu du azterketa garaian ikasleek Monterrongo liburutegiaz egiten duten erabileraz.

Ostegunero bezala, datorren ostegunean Soinuz Blai izango dugu pantailan. Oraingo honetan Iban Gonzalez aretxabaletarra izango da musika saioa aurkezten. Betiko moduan, azken orduko bideo-klipak aurkeztuko dizkigu, jakin ditzagun musika berriaren nondik norakoak

■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 30	ASTELEHENA, 1	ASTEARTEA, 2	ASTEAZKENA, 3	OSTEGUNA, 4	OSTIRALA, 5
<p>13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika: Munduari bueltaka, Aurrez aurre, Ekilan, Soinuz Blai eta Astebete</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Astebete</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:30 Mondrasport Itxaro Zubillaga kazetariak aurkezturik</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Mondrasport (errepika). 20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:30 Munduari Buelbaka. Garikoitz Kortazarrek aurkeztuta. Miren Uribetxebarriak iaz Etiopian egin zuen bidaiaren berri emango du.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Munduari Buelbaka</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:00 Aurrez Aurre. Karme Zuazubiskarrek Joxe Arriaran pilotari ohia elkarrizketatu du.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Aurrez Aurre (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:30 Kaleidoskopioa. Unai Iparragirrek eta Aitziber Langaranek aurkezturik. Jon Garai Kulturako udal teknikaria ekarriko dute,</p> <p>22:00 Soinuz Blai.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Kaleidoskopioa (errepika).</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:30 Astebete. Astean zehar gertatu diren berri garrantzitsuenen errepa-soa, Maider Osak aurkeztuta.</p> <p>22:00 Soinuz Blai. Iban Gonzalezek azken orduko bideo-klipak aurkeztuko ditu.</p>

IGANDEA, 31

13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika:
Munduari bueltaka, Aurrez aurre, Ekilan, Soinuz Blai eta Astebete

IÑAKI SARASUA (APAIZA)

“Mundu hau aldatzeko hezkur

Hogeita hamairu urte ditu eta aretxabaltarra da sortzez. 19 urterekin Zaragozara joan eta bi urteko nobiziatuaren ostean, marianista egin zen. Ondoren, Valentziara joan zen. Irakasle ikasketak egin eta eskolak ematen hasi zen, gazteekin lanean. Handik Donostiara etorri zen eta hemen ere gazteekin lanean ibili zen. Bitartean, Euskal Filologia ikasi zuen. Azkenean, apaiz izan nahi zuela erabaki eta Erromara joan zen. Hiru urtez hantxe egon eta apaiz eginda itzuli da. Orain, berriz, Valentzian dago, Bibliaren Teologia ikasten bi urtez.

— Nondik datorkizu apaiz izateko bokazioa?

— “Nondik” nahiko samurra da erantzuten: Jainkoarengandik, bokazio guztiak bezala. “Nola”, ordea, luze-xeagoa da azaltzen. Hasteko, bizitza erlijiosoa — fraile izatea — eta apaizgoa — abade izatea — bereizi nahi ditut. Nik hamahiru urte daramatzat frai-

de marianista izaten, hori da nire bokazio nagusia, Jainkoak eman didan deia eta zorion bidea. Horregatik bizi naiz elkartean, inguruko eta berrionaren zerbitzura, egunero dohainik jasotzen dudana dohain ematen saiatuz. Apaizgorako deia geroago etorri da, aurrekoaren konkrezio posibiletako bat bezala. Elkarteko nire anaiek animatu ninduten aukera hori aztertzea eta denborarekin, baietz ikusi dut, hau dela, Jainkoak niretzat nahi duena.

— Zer sentitu zenuen Gabonetan zure lehenengo meza jaioterrian esan zenuenean?

— Batetik poz handia: niretzat Aretxabaleta jaioterria baino gehiago da, eta ezin ukatu gauza ederra dela senide, lagun eta herritarren berotasuna eta laguntza sentitzea. Bestetik, txiki eta ahul izatearen kontzientzia: nola izan Jainkoaren maita-

sunaren mezulari eta bere barkamenaren tresna, nola hitz egin berri onaz, sarri nire bizitzak kontrako testigantza ematen duenean? Baina, horren guztiaren gainera, konfiantza sentitu nuen eta sentitzen dut: ez nago bakarrik.

— Gazteekin lan egin izan duzu beti. Zergatik?

— Mundu hau aldatzeko, hezkuntza baino bide hoberik

ez dagoelako. Eta gaztaroa oso une garrantzitsua da bizitzaren altxorren bilaketan ipar orratza erabiltzen ikasteko.

— Erlijioaren egoera Leintz Bailaran ...

— Garbi dago balio krisi garaian gaudela. Gauza asko eta azkar aldatu dira eta horrelako egoerek beti sortu izan dute historian zehar nolabaiteko orientazio galera. Baina gizakia bizi den artean izango da erlijioa ere, maitasuna galduko ez den bezalaxe. Modu berriak aurkitu behar ditugu, hori bai, gaurko beharrei erantzuteko... betiko iturri ezkutituk.

— Zertan aldatu da Eliza azken urteotan?

— Eliza ez da Aita Santua. Eliza zu eta ni gara, eta hainbat atxabaltar eta arrasatear, kristauon “elkartea” esan nahi baitu *ecclesia* hitzak. Beraz, gu aldatzen



“Garbi dago balio krisi garaian gaudela. Gauzak asko eta azkar aldatu dira eta horrek beti sortu izan du orientazio galera”

za baino bide hoberik ez dago”

ari garen neurrian eliza ere aldatzen da, nahiz eta funtsak —Jesukristok— bere horretan dirauen beti. Gaurko eliza inoiz baino askotarikoagoa da. Beste garai batzuetan baino begirune handiagoz onartzen ditu mugimendu ezberdinak bere baitan eta gero eta irekiagoa dago kulturen aberastasuneki-ko. Hala ere, uniformetasunaren tentazioa beti dago hor, batez ere Erroman.

— Nola lagundu nahi diozu gizaritari?

— Poliki-poliki gauza bat ari naiz ikusten eta ulertzen. Urte batzuk igaro ditut gauzak egin eta egin, mila gau-

zatan konprometitua. Eskolak emateaz gain, kirola bultzatu, mendizaletasuna sustatu, euskara talde bat sortu, bakea eta antimilitarismoa zabaldu, drogapean jausitakoei lagundu, ijitoekin lanean saiatu... Orain ari naiz konturatzen, hori guztia ahaztu gabe ere, nik gizaritari eman diezaiokedan laguntzarik onena ez dela gauzak egitea, naizena izatea baikik. Orain Valentziako auzo marjinal batean bizi naiz. Eta nire ahalegin nagusia auzoan bake espazio bat izatea da: harrera oneko leku bat, otoitz toki bat, maitasuna eta barkamena aurki bizi diren toki bat, honen guztiaren iturri den

Jainkoarengan oinarriturik.

— Inoiz fedeari buruzko zalantzarik sentitu duzu?

— Bai, noski. Fedea, harreman mota bat izanik, dinamiko da nahitaez. Bestela hila dago. Garrantzizkoa da ez ulertzea fedea ariketa intelektual huts bezala. Harreman pertsonal bat da fedea, konfiantzaz eta maitasunez eraikitzen dena. Maitasun harreman guztietan bezala, krisirik eta bilakaerarik ez badago, harreman horrek ez du iraungo.

— Galdera motz zenbait:

— **Lizarrako hitzarmena:** aurrerapausu itzela, lehenago etorri behar zena, hain-

beste odol isuri aurretik.

— **Politikariak:** zaila da mundu horretan ustelkeriari ixkin egitea. Baina behar ditugu politikariak eta nik uste borondate oneko jende zuzen dextente dagoela, gainera, tartean.

— **Abortoa:** emakume askok benetan egoera zail eta tamalgarriak bizi dituzte, baina norbaiten bizia moztea ez da inoiz irtenbide ona, nik uste.

— **Drogen legeztatzea:** drogak pertsona desegiten duela esperientziaz ikasi dut, Giza-kia Helburun lagunduz. Arazo konpontzeko legeztatzea ona den edo ez, ez dakit. ■



Loramendi kirolak

e-mail: loramendi-k@jet.es

- Sudaderak
- Prakak
- Txamarrak
- Txandalak
- Zapatilak
- Forro polarrak

ZATOZ!

% 50

San Andresen eta Garibain

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai Bergaran. Mazterreka auzoan. Tel.: 943 76 17 49. Gaueko 21:00etatik aurrera deitu.

• Duplex etxebizitza polit bat salgai Erguin kalean. Dena kalera begira. Garaje itxia aurrean. Tel.: 943 77 01 91 (09:00etatik aurrera).

• Etxebizitza salgai Arrasaten, Cordoba y Oro kalean. Tel.: 943 79 51 88 / 943 79 86 40

• Etxebizitza salgai Aretxabaletan. Garajea aukeran. Tel.: 943 79 80 44 (deitu 09:00etatik 18:00etara).

• Etxebizitza salgai. Tel.: 943 79 45 58.

2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 70 73.

3. Errentan emateko

• Emakume alarguna ikasle bati (hobe neska bada) logela bat alokatzeko gertu, Bilboko Santutxu auzoan. Metroko sarreratik hurbil dago. Merke. Tel.: 944 33 54 41.

4. Errentan hartzeko

• Lau gazte gara gure autogestiorako nekazaritza eta eskulangintza proiektuak ditugunak. Beraz, gustura hartuko genuke berritzeko dagoen baserri zahar bat. Tel.: 943 79 48 09 (Itziar).

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 20 20 (Iker).

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 46 61.

• Etxebizitza alokatu edo osatzeko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 64 04.

• Pertsona bakarrarentzako teilatupea alokatu nahi dut. Tel.: 943 79 59 60.

5. Etxeak osatzeko

• Bi langilek beste lagun bat behar dute Arrasaten dagoen etxebizitza osatzeko, Erguin auzoan (bakoitzak bere logela). Tel.: 943 77 15 67.

• Gela bat alokatzen da Arrasateko erdi aldean. Tel.: 943 79 87 59.

• Bi mutilek etxebizitza merke bat alokatuko genuke. Beste batzuekin

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi

14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi

25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdtu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

osatzeko ere prest egongo ginateke. Tel.: 943 79 89 73.

• Etxebizitza bilatzen da elkarrekin bizitzeko. Tel.: 943 71 42 39 (deitu 18:00etatik 21:00etara). Yolanda.

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu Aramaion. Tel.: 617 600 265 (bertan mezua laga).

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai S. Andres eskola ondoan; auto batentzat. Tel.: 943 62 46 00 (102 luzapena). Santi.

• Garajea salgai Kurtzetxiki kaleko 36an (San Andres auzoan). Tel.: 943 79 41 68 (Andoni).

9. Errentan emateko

• Uarkapen garaje itxia alokatzen dut. Prezio onean. Tel.: 943 79 84 35.

10. Errentan hartzeko

• Garaje bat alokatuko nuke Musakola aldean. Tel.: 943 79 21 46.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100m²ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 943 79 07 24.

• Zerkaostetan kokatua dagoen lurrindegia salgai. Tel.: 943 79 28 85.

• Enpresentzako lekuak dauzkagu alokatzeko, ura eta argindarrarekin. Era honetako jarduerak egin litezke hemen: muntaketa, prentsa, pintaketa, soldaketa eta galdaragintza. Tel.: 608 770 786.

14. Errentan emateko

• Garajea alokagai. Musakola aldean. Tel.: 943 79 37 38 (eguerdian).

• Eratuta dagoen 20 m²ko bulego komertziala garaje itxi baten truke aldatuko nuke. Tel.: 943 77 16 00.

• Azkar taberna alokatzen da. Udalpe kalea, 6 - behea. Interesatuak tabernara etorri edo 943 79 70 43 telefonora deitu.

• Tokiak alokatzen dira Aretxabaletan (sukaldean erabiltzeko eskubidearekin). Tel.: 943 79 05 26.

• 75 m²ko lonja bat alokagai Anboto kalean. Tel.: 943 79 98 07.

15. Errentan hartzeko

• Lagun talde batek garajea edo lonja alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 943 79 69 64 (Xabier) edo 943 79 61 44 (Dani).

LANA

17. Eskaintzak

• 27 urteko neska prest legoke haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Taberna batean ere lan egingo luke. Zortzi urteko esperientzia du. Tel.: 943 77 08 13 (M^a Carmen).

• Eperientzia handiko emakumea prest dago arropa konponketak, sukaldeko lanak edo plantxa egiteko, orduka. Tel.: 943 79 59 43.

• Psikologoa laguntza eskola emateko gertu. Tel.: 943 79 86 28.

• Italiar lizentziatua italiarako eskolak eta itzulpenak egiteko gertu. Tel.: 943 76 65 24.

• Psikologoa laguntza emateko gertu. Tel.: 649 22 51 07.

• Neska arduratsua prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74 (Goizez edo 20:00etatik aurrera detu).

• Pertsona euskalduna behar da San Andresen dagoen janari denda gestinatzen. Dendak bezero asko ditu. Tel.: 941 60 81 79. Fernandez.

18. Eskaerak

• Pertsona bat behar da Arrasateko taberna batean lan egiteko. Utzi telefonoa eta izena erantzungailuan eta deituko dizugu. Tel.: 943 77 11 92.

• Andra bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna eta euskalduna. Tel.: 943 77 04 60 (Margari).

• Ingelesetik gaztelaniarako itzulpen bat egiteko, bertako baten laguntza behar da. Tel.: 609 44 73 13 (Juanjo).

• Pertsona bat behar da asteburue-

tan pertsona nagusi bat zaintzeko. Tel.: 943 79 98 26 (20:00etatik 22:00etara deitu).

• Neska bat behar dugu etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 22 92.

• Emakume bat behar da tabernako sukaldean lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska bat behar dugu. Deitu arratsaldean. Tel.: 943 79 73 82.

• MCC ezagutzen duen komertziala behar da. Ordu-tegi libre. Produktu paregabea frogatzeko. Tel.: 943 79 22 65.

• Neska euskaldun bat behar dugu asteburu-erako zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 945 44 50 86.

• Esperientziadun andra bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 629 263 945 (20:00etatik aurrera).

• Jatetxe batean zerbitzaria behar dugu asteburu-erako. Tel.: 945 44 50 95.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Margo eta marrazki artistikoko eskolak ematen dira. Tel.: 943 79 19 23 (eguerdian edo gauean deitu).

• Enpresa Zientzietan lizentziadunak eskola partikularrak ematen ditu, 15 urtetik beherakoentzat. Tel.: 943 79 06 39.

• Irakasle ikastetetan lizentziadunak eskola partikularrak ematen ditu. el.: 943 79 35 24.

21. Eskaerak

• Akademiak irakaslea behar du arratsaldean eskolak emateko, (EH, BBB, UBI, LH mailak). Tel.: 943 77 11 06.

• Ingeleseko eskola partikularrak hartuko nituzke. DBHko 3. mailan nabil. Tel.: 943 79 68 84.

MOTORRA

23. Saldu

• Peugeot 106, 1.100 injection salgai. 93 urtekoa. 70.000 km. 650.000 pta. (negoziatze-koak). Tel.: 607 86 16 98

• Yamaha salgai, 93koa. Egoera onean. 350.000 pta. Tel.: 943 79 78 36

• Fiat 1 turbo salgai. 118 cv, 91koa, 90.000km. Egoera onean. Tel.: 943 79 45 50 (Jesus).

• Peugeot 306 XSI salgai. 2000cc³ 2 ate, aluminiozko lantak, 70.000 km. Merke. Tel.: 943 79 78 32.

• Fiat 1 Turbo salgai. 118 cv. 1991 urtekoa, 90.000 km. Egoera onean. Tel.: 943 79 45 50.

• Renault 11 GTX salgai. Tel.: 943 79 69 13.

• Renault 5 Turbo salgai. Tel.: 943 776 38 84.

• Ford Courier 18D salgai Matrikula: SS-AN Tel.: 943 79 82 09.

• Golf GTI salgai. Sei urte ditu eta egoera onean dago. Tel.: 608 771 732.

DENETARIK

26. Saldu

• Argazki makina salgai. Minolta X-300. Tamron 28-200 objektiboa. Star-biltz flash-a. Tel.: 943 88 16 08. Arratsaldean edo gauez.

• Bebe-Confort markako ume kotxea salgai. Euritarako plastikoa dauka. Aulki estalkia ere bai. Tel.: 943 79 38 16 (10:00etatik aurrera) Idoia.

• Mahai tolesgarria salgai. Tel.: 943 79 18 50 (Sole).

• Alpha markako fly berde bat salzten dut. Tel.: 943 79 54 14 Julen.

• Super Nintendo kotsola salgai. Egoera onean dago. Hiru joko eta agintea. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 80 99.

• Gitarra elektrikoa salgai, 30w. ko amplifikagailu batekin. 50.000 pta. Dei egin asteburu-erako 943 73 40 08 telefonora.

• Gela bat eta sofa ohe bat salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 41 26.

• Tabako makinak salgai, 100.000 pta. baino gutxiagotan. Tel.: 943 79 87 79 (Maite).

• Auto barruan eramateko haur-aulkia salgai. Tel.: 943 79 44 14 (eguerdian deitu).

• Inauterietarako animalia mozorroa salgai 3-4 urteko haur batentzat. Tel.: 943 79 44 14 (eguerdian deitu).

• Zeharkaldietarako eskiak salgai. Oholak: Rossignol Nepal, 1,70 cm. koak. Fijazioak: Silvretta 404. Tel.: 943 79 51 79. Gauez.

• Eskiak salgai (6-9 urteko haurrentzat egokiak). Oholak: Tecno, 1,50 cm. koak. Fijazioak: Salomon 137. Tel.: 943 79 51 79. Gauez.

27. Erosi

• Boxer arrazako txakurkumeak salgai. Txertatuak eta pedigridunak. Tel.: 943 85 32 44 / 608 770 651

29. Eman

• SOS. Ijitoek mantak behar dituzte. Laguntzeko prest bazaude, eraman itzazu Zaldispeko aparkalekura edo Jai zale tabernara 15:00etatik aurrera. Eskerrik asko.

• Egoera onean dagoen eta 90 cm. ko luzera duen ohea (koltxoirik gabe) eman nahi dut, eta baita lanpara bat ere. Tel.: 943 79 68 75 (goizetan deitu eta Teresaz galdetu).

• Koltxoiren bat bota behar baduzu, deitu telefono honetara, guk behar dugu eta: 943 77 05 90 (Nagore). Eguerdian deitu.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



L 960-61. denboraldian atera zitzaion argazki hau Arrasateko futbol taldeari. Juventud Deportiva Mondragon zen orduan zeukan izena. 1945. urtetik 1967ra arte izan zuen izen hori.

Goiko partean ezkerretik

eskumara, Felix Gainzarain, "Misol", Alberto Baltzategi "Erregetxo", Alejandro Ezkurrera, Pablo Bergaretxe, Egaña II "Pitia" eta Jokin Iria daude.


Behean, berriz, ezkerretik eskumara: Jose Antonio Muruamendiaraz, Julian Errasti, Luis Zufiria, Esteban Gómez

"Barullo" eta taldearen kapitaina zen Manuel San Vicente "Zurdito".

Bitxia da benetan beheko partean agertzen den publizitate, ezta? Izan ere, egutegi batean argitaratutako argazkia dugu hauxe, Petra Columnas-ek Olarte kalean daukan den-

darako atera zuen. Schuss, orduko gaseosaren izena zen.

Argazkia:
 Gau-Txori taberna.
Berriemalea: Gau-Txori taberna, eta Leze-Txiki elkarte (Garagartza).

OPEL 



TAKOLO AUTOAK

OPEL FRONTERA BERRIA!

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia
 Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

Esperientzia handiena profesional hoberenekin.

Kalitatea

HAUR hezkuntza
LEHEN hezkuntza
D.B.H.
1etik 16 urterarte

Familiari bizimodua errazten diogu.

ORDUTEGI
MALGUA
07:30etatik 18:00etara

Erraztasuna

Zerbitzu goxo-goxoa.

Zerbitzua

JANGELA
550 Pta.
Eguneko.

Behar baduzu, gerturatuko zaitugu.

AUTOBUSA
5.000 pta.
Hilean

Esku-eskura

Espezialistarik hoberenak txikienentzako, prezio txikian.

Prezioa

HAURTZAINDEGIA
1etik 6 urterarte
6.000 pta. Hilean.

GEHIAGO
GUTXIAGOGATIK



la merced
IKASTETXEA

centro hogar MUEBLES



a, eme...interiores

sukaldeak



Sofa
leku

GRUPO



Amuebladora
Mondragonesa

C/ Zigarrola, 1 pab. 6-10 • C/ Garibai, 9 • 20.500 ARRASATE
Tel. 943 79 15 03 / 943 77 14 92 • Faxe 943 79 14 89